



ALDAHITZ IKERKETA

Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan

Ondorio nagusien txostena

2011ko uztailean

AURKIBIDEA

1.- Ikerketaren nondik norakoak	3
1.1.- Ikerketaren helburuak.....	3
1.2.- Aztertutako kasuen ezaugarriak eta kontaktazioa.....	3
1.3.- Informazioa jasotzeko metodologia.....	7
1.4.- Ikerketaren lantaldea	8
2.- Oinarri teorikoa.....	10
2.1.- Bigarren hizkuntzaren jabeakuntza.....	10
2.2.- Bigarren hizkuntzaren jokaera ohiko bihurtzea	15
2.3.- Hizkuntzaren jabeakuntzaren eta ohitzearen arteko loturak	19
3.- KASUEN AURKEZPEN LABURRA	21
3.1.- A1 KASUA (ISABEL)	21
3.2.- A2 KASUA (JULEN)	21
3.3.- B1 KASUA (ANE MIREN)	22
3.4.- B2 KASUA (IRENE).....	22
3.5.- C1 KASUA (LUIS ALBERTO)	23
3.6.- C2 KASUA (JABIER)	23
3.7.- D1 KASUA (ESTHER).....	24
3.8.- D2 KASUA (OIER)	25
4.- EMAITZEN IRAKURKETA.....	27
4.1.- Euskara ikasteko bultzada	27
4.2.- Harreman finkatuak aldatzeko aitzakiaren beharra.....	31
4.3.- Egiturazko uztardura: taldetasuna	33
4.4.- Zirt edo zart: “hemendik aurrera euskaraz”	36
4.5.- Elkarri egokitzeko aldia	39
4.6.- Euskaltegiaren egitekoa	43
4.7.- Aldagai pertsonalak: larritasun eramangarria.....	46
4.8.- Hizkuntza jokaera berriaren hedapena	47
4.9.- Lanari lotutako aldagaiak	50
4.10.- Zonalde soziolinguistikoa	54
5.- Ikerketaren fitxa teknikoa	56

1.- Ikerketaren nondik norakoak

1.1.- Ikerketaren helburuak

Ondoren zehazten diren helburu hauek ditu Aldahitz ikerketak. Maila orokorrean, helburua honako hau izan da:

*Euskara ikasi duten langileek lankideekin gaztelaniatik euskarara egin dituzten **ohitura-aldaketa-prozesuak**, eta langile horiek **euskara ikasteko jarraitu dituzten prozesuak** ikertzea.*

Helburu orokor horren baitan, gai jakin batzuetan jarri dugu arreta. Prozesu horien ikerketan, ondorengo hiru helburu zehatzak hartu ditugu aintzat:

Helburu zehatza 1: euskara ikasteko prozesuen eta erabilera mailako aldaketa-prozesuen artean eman daitezkeen loturak ezagutu eta aztertzea.

Helburu zehatza 2: gaztelaniatik euskarara erabilera mailan egindako aldaketa-prozesu horien *gakoak* identifikatzen ahalegintzea, besteak beste: *zer dela eta* egin dituzten aldaketak, zein *zailtasun* topatu dituzten bidean eta zein *estrategia* izan zaizkien baliagarri aldaketekin aurrera egiteko.

Helburu zehatza 3: euskara ikasteko jarraitu dituzten prozesuak ezaugarritzen dituzten elementuak aztertzea, ahal den neurrian prozesu horien tipologia bereiziz eta deskribatuz.

1.2.- Aztertutako kasuen ezaugarriak eta kontaktazioa

KASUEN EZAUGARRIAK

Hiru ezaugarri nagusi dituzte ikerketa honetan aztertu ditugun kasuek:

1.- Euskara ikasten aritu diren langileak izatea:

Era batera edo bestera “euskara ikasten” aritu diren langileen kasuistika oso zabala da. Zehazki, ikerketa honetan “euskara ikaste”ari dagokionez ondorengo ezaugarriak zehaztu dira:

- Alde batetik, **langilea euskaltegian ibilitakoa izatea**: izan bere aldetik euskaltegian, izan lantegian antolatutako euskara eskoletan, edota euskara ikasteko liberatuta.
- Eta bestetik, ikasketa horretako tarteren batean “**atalase mailan**” edo **hortik beherako mailatan ibilitakoa** izatea. Hau da, euskaltegiko lehen urratsetan edo erdi-mailakoetan ikasten ibilitako langilea izatea, ez soilik goi urratsetan edo alfabetatze ikastaroetan.

2.- Lankideekin harremanen hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu izana:

Bigarren ezaugarri honetan ere, lankideekin izan daitezkeen harreman-motak eta harreman horietan hizkuntza aldetik gerta daitezkeen aldaketak era askotakoak dira. Ondoren zehazten diren ezaugarriak bilatu dira aztertutako kasuetan:

- a. **Langile horien harremaneko hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu da, eta nabarmen aldatu da** lankide batekin edo gehiagorekin: aldaketaren aurretik harremana normalean (beti edo ia beti) gaztelaniaz zen, eta aldatu ondoren normalean euskaraz da (beti edo ia beti). Berdin du aldaketa gertatzen zenbat denbora pasatu den.
- b. **Gutxienez lankide batekin nabarmen aldatu du harremanaren hizkuntza**, eta gutxienez bien arteko harremanean. Gutxieneko horretaz gain, izan daiteke lankide gehiagorekin ere aldatu izana. Izan daiteke ere, binakako harremanetan ez ezik, taldeko harremanetan ere aldatu izana. “Nabarmen aldatzea” kontsideratu da hizkuntza batean (gaztelania) finkatua zegoen harreman bat, beste batean (euskara) finkatua egotera pasatzea.
 - i. **Hizkuntza ohitura “finkatua” dagoela kontsideratu da harremana gutxienez sei hilabetez (nagusiki) hizkuntza batean denean**. Kasu honetan, beraz, aipatu aldaketak eman aurretik, egon da epe bat, gutxienez sei hilabetekoa, non lankide horien arteko harremana (nagusiki) gaztelaniaz zen, eta aldatu ondoren egon da beste bat, gutxienez sei hilabetekoa, non harreman hori nagusiki euskaraz izan den.
- c. **Aipatu aldaketa eman da gutxienez lankide batekiko ahozko harreman informaletan**. Izan daiteke, harreman formaletan ere aldaketa eman izana (lankide berarekin edo beste batzuekin). Eta izan daiteke ere, ahozko harremanetan ez ezik, idatzizko harremanetan ere aldatu izana.
- d. **Aipatu aldaketa “hurbileko” lankide batekin edo batzuekin izan da**: eguneroko edo – gutxienez- asteroko harremana duten lankideekin izan d(ir)a aldaketa(k) eta langile horien artean gutxieneko harreman bat dago egunerokoan (ez “kaixo” eta “agur” bakarrik).

Horrela definitu da, beraz, aztertutako langileen kasuan harremanaren hizkuntza “aldatu izana”. Euskara ikasteko prozesuek eta erabilera mailan ematen diren aldaketen artean egon daitezkeen loturak aztergai izanik, oso interesgarria da ere euskara ikasi arren hurbileko lankideekin **aldaketa nabarmenik egin ez** duten langileen kasuen azterketa. Gaiaren zabaltasuna eta ikerketa honen mugak kontuan izanik, ordea, kasuen definizioa puntu honetan gorago zehaztu bezala egitea hobetsi da.

3.- Adina: 50 urtetik behera:

Aztertutako kasuak 1960az geroztik jaiotako langileenak dira. Ezaugarri honek ikerketaren ondorioen aplikagarritasunarekin du lotura gehienbat.

KONTAKTAZIOA

Aipatu hiru ezaugarri nagusiak betetzen zituzten langileen kontaktazioa Aldahitz ikerketaren Garapen Taldearen eta Talde Teknikoaren artean koordinatu eta bideratu da. Kasuen hautaketa definitzeko **bi aldagai** hartu dira kontuan: **zonalde soziolinguistikoa** eta **lantegi mota**.

Zonalde soziolinguistikoa kontuan hartu da aldagai gisa baloratu delako maila orokorrean eragina izan dezakeela bai euskara ikasteko prozesuan eta baita lankideen harremaneko hizkuntza aldaketetan ere. Aldagaia operazionalizatzeko, kontuan hartu da langilea aritzen den lantegia zein herritan kokatua dagoen, eta zenbatekoa den herri horretan **euskaldunen portzentajea**¹. Horren arabera, **lau zonalde** soziolinguistiko berezi dira: A (euskaldunen portzentajea %75-100), B (eus. por. %50-74), C (eus. por. %25-49) eta D (eus. por. %0-24).

Lantegi motari dagokionez, bi eremu berezi dira: **Administrazio publikoa** alde batetik eta **enpresa pribatuak** bestetik. Bereizketa hau egitean kontuan hartu da administrazioan badagoela (EAEn behintzat) legeak markatzen duen **derrigorrezko euskalduntze** testuinguru bat -enpresa pribatuetan ez dagoena- eta horrek eragina izan dezake aztergai ditugun bi fenomenoetan (bai ikasketan eta bai ohitura-aldaketan).

Bi aldagai horiek kontuan izanik, beraz, 8 tipologiatako langileak berezi dira. Ikerketaren mugak aintzat harturik, tipologia horietako bakoitzean **kasu bana** aztertzea erabaki da, ondorengo taulan ageri diren bezala banatuta.

1 Taula: hautatutako kasuen lagina, aintzat hartutako bi aldagaien arabera berezita:

Ezagutza	Administrazio publikoa	Enpresa pribatua	guztira
A (%75 – 100)	1	1	2
B (%50-74)	1	1	2
C (%25-49)	1	1	2
D (%0-24)	1	1	2
guztira	4	4	8

¹ Erreferentzia moduan EUSTATEko 2006ko datuak erabili dira.

Ikerketaren eremuari dagokionez, gorago aipaturiko kasuen ezaugarriez eta kontuan hartutako aldagaiez gain, ez da bestelako mugarik jarri. Geografikoki, esate baterako, ikerketa ez da alde zurratik mugatu. Dena den, aipatu ezaugarriekin ikerketa honetan lokalizatu diren kasu guztiak EAE barruan izan dira.

KONTAKTAZIORAKO URRATSAK

Ondoren zehazten diren urratsak eman dira kasuak lokalizatu eta haiekin kontaktatzeko:

1.- Kasuen ezaugarrien arabera bilaketa Garapen Taldeko erakundeetako teknikari-sarearen bidez.



2.- Lokalizatutako 8 kasuren hautaketa, definitutako ezaugarrien arabera.



3.- Kasuen kontaktazioa eta ikerketan parte hartzeko proposamena.

Ikerketako Garapen Taldean ondorengo erakundeetako ordezkariak biltzen dira: AEK, Elhuyar Aholkularitza, EMUN, Hernaniko Udala (Euskara Zerbitzua), Eusko Jaurlaritzako HPS eta Soziolinguistika Klusterra. Erakunde hauek, guztira hartuta, lankide-sare zabala biltzen dute, aztergaiaren aniztasun osoa biltzeko aukera ematen duena, eta beraz egokitzat jo kontaktazioa sare honen bitartez egitea.

Guztira, gorago deskribatutako ezaugarriak betetzen zituzten² 33 kasu lokalizatu dira. Horien artean 8 tipologietako bakoitzerako kasu bana hautatzeko, berriz, ondorengo irizpideak erabili dira:

² 33 kasu buruzko "A galdetegiak" jaso dira. Galdetegi horiek kasu buri buruzko oinarriko aurre-ezagutza bat ematen digute, hurbilpen mailakoa. Ikerketan definitutako ezaugarriak kasu batean zenbateraino eta nola betetzen diren azterketan zehar ikertu da askoz modu sendoagoan.

1. Harremaneko hizkuntza-ohituraren aldaketa nabarmena(k) izatea, eta maiztasun handiko harremana duen lankide batekin edo batzuekin.
2. Euskara ikasteko eskolak orain gutxi bukatu izana, edo oraindik eskolak hartzen aritzea.
3. Kasuen aberastasuna: ahalik eta lankide gehienekin harremaneko hizkuntza aldatu izana.
4. Euskalduntze prozesua euskaltegian ahalik eta urratsik baxuenetik hasi izana.

Lokalizaturiko 33 kasuak, beraz, *zonalde soziolinguistikoa* eta *lantegi mota* aldagaien arabera 8 multzotan banatu dira, eta multzo bakoitzean gorago zehazturiko lau irizpideak hurrenkera horretan aplikatuta hautatu da tipologia bakoitzeko kasu bana.

Beherago metodologiaren atalean adierazten denez, kasu bakoitzaren azterketan bi elkarrizketa egin dira: bata langileari berari eta bigarren bat, osagarria, langile horren euskara irakasle izandako bati. Elkarrizketa osagarri horren hautaketa, dena den, kasu bakoitzaren ezaugarriak eta bilakaera kontuan izanik egin da, eta egokiago zen kasuetan, langile horren irakasle bati egin beharrean, bere lankide bati egin zaio. Ondorengo taulan zehazten dira azterturiko kasuak eta bakoitzean eginiko elkarrizketak:

2 Taula: azterturiko kasuak eta kasu bakoitzean eginiko elkarrizketak:

	Administrazio publikoa	Enpresa pribatua
A (%75 – 100)	A1 KASUA	A2 KASUA
	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: lankidea	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: irakaslea
B (%50-74)	B1 KASUA	B2 KASUA
	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: irakaslea	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: irakaslea
C (%25-49)	C1 KASUA	C2 KASUA
	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: irakaslea	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: lankidea
D (%0-24)	D1 KASUA	D2 KASUA
	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: lankidea	Sakoneko elk.: langilea Elk. osagarria: -----

Lau kasutan, beraz, langile horien euskara irakasle izandako bati egin zaio elkarrizketa osagarria, eta beste hirutan, lankide bati. D2 kasuan ez da elkarrizketa osagarririk egin, langile horrek ez baitu euskara ikasi euskaltegian helduarooan.

1.3.- Informazioa jasotzeko metodologia

Kasu bakoitzaren azterketan bi elkarrizketa egin dira. Lehenengo eta behin langileari berari egin zaio **sakoneko elkarrizketa** bat. Ondoren, informazio hori guztia eta langilearen beraren iritzia kontuan harturik, **elkarrizketa osagarri** bat egin zaio bere euskara irakasle izandako bati edota bere lankide bati.

Elkarrizketak egiteko **gidoi bat** erabili da, elkarrizketei oinarrizko egitura bat eman diena eta kasuen arteko konparagarritasunerako ezinbesteko elementua dena. Gidoi honen aplikazioa, dena den, kasu bakoitzaren kontakizunak eta sakontzeak eskatzen duen malgutasunarekin egin da.

Langileei eginiko elkarrizketaren egiturari, honako hauek izan dira gai nagusiak:

- Kokapena (Lantegia, saila, lan-mota...).
- Langilearen euskara-ikaste historia.
- Lankideekiko hizkuntza-erabileren azterketa (nortzuekin gertatu diren aldaketak, nortzuekin ez, nolako aldaketak, langile horiekiko harremanak, langile horien euskarazko gaitasuna...).
- Harremaneko hizkuntza aldatu den kasu baten azterketa kualitatiboa.
- Euskarazko ikas prozesuaren azterketa kualitatiboa.

Irakasle eta lankideei eginiko elkarrizketak malguagoak izan dira, oro har, kasu bakoitzaren ezaugarrietara egokitu direlako. Elkarrizketa hauek ondorengo lau gai edo kategoria nagusi inguruan garatu dira:

- Ikasteko motibazioa
- Langilearen ikas estiloa (jabekuntzarako – ikaskuntzarako joera)
- Langilearen zailtasunen aurreko joera (estrategiak erabiltzeko gaitasuna)
- Izaera (urduritasuna, lasaitasuna, ausardia...)

Elkarrizketa guztiak egin ondoren, elkarrizketatu guztiei galdetegi bana bidali zitzaion postaren bidez, euren iritzia eman zezaten 0-4 eskala bat erabiliz, lehenengo azterketa orokorrean jasotako ideia nagusiei buruz. Hemengo datu hauek lagundu ziguten kasu guztien artean oinarri komunagorik eraikitzen, eta hortaz, aukera datuak modu erregularragoan emateko.

1.4.- Ikerketaren lantaldea

Ikerketaren garapenerako hiru talde antolatu eta koordinatu dira: ikerketaren Talde Teknikoa batetik, Garapen Taldea bestetik eta azkenik, Aholkulari Taldea.

Talde teknikoak:

- Ikerketaren Zuzendaria (Pello Jauregi, HUHEZI) eta Koordinatzailea (Pablo Suberbiola, SL Klusterra).
- Garapen Taldean adostutako ildo orokorreari jarraituz, ikerketa garapen teknikoaren ardura izan du. Zuzendariak landu ditu nagusiki ikerketaren oinarri teorikoa, datu-jasoketaren diseinua, elkarrizketak egitea eta ondorioen lehen erredakzioa. Koordinatzailearen lana izan da, gehienbat, aipatu zereginetan laguntza teknikoa eskaintzea eta ikerketaren koordinazio eta kudeaketa orokorra eramatea.

Garapen Taldea:

- Talde honetan finkatu dira ikerketaren garapenerako nondik norakoak eta irizpide orokorrak. Hau izan da taldearen osaketa:
- SL Klusterreko bazkideak:
 - o AEK (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Agurtzane Loidi), EMUN (Gurutze Mendizabal) eta Hernaniko Udala (Malores Etxeberria).
- Ikerketaren babeslea:

- Eusko Jaurlaritzako HPS (Jon Aizpurua)
- Talde Teknikoa:
 - Zuzendaria (Pello Jauregi) eta koordinatzailea (Pablo Suberbiola).

Aholkulari Taldea:

- Maila teoriko eta metodologikoan aholkularitza-lana egin du ikerketan. Talde honetako kide izan dira:
 - Alex Mungia (HABE).
 - Iñaki Garcia (Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI).
 - Juanjo Arrospide (EHU, Gizarte psikologia eta portaera zientzien metodologia).
 - Patxi Juaristi (Euskaltzaindia, Jagon Saila).
 - Ikerketaren Talde Teknikoa.
- Lantaldekideez gain, bibliografiaren azterketan HABE Liburutegiaren lankidetzaz estimagarria izan dugu ikerketan zehar.

2.- Oinarri teorikoa

Oharra: atal honetako testua Aldahitz ikerketan erabili den oinarri teorikoaren **bertsio laburtua** da. Osoa kontsultatu nahi izanez gero, **Aldahitz 2011. Ikerketaren txosten osoa** dokumentuan duzue.

Azterketa diseinatzeko eta datuak interpretatzeko erabili dugun ikuspegi teorikoa zehaztu nahi dugu datozen orrialdeotan, zertzelada handietan besterik ez bada ere. Zertzelada finagoak nahi dituenak jo beza ikerketa honetako txosten orokorrera, bertan aurkituko ditu-eta honetan erabili ditugun iturri teorikoak eta ipartzat izan ditugun pentsamendu ildo nagusiak, besteak beste.

Ikerketaren enborra bi adartxok osatzen dute: euskara bigarren hizkuntza gisa ikastea bateko, eta euskaraz egiteko ohitura eraikitzea besteko. Lan eremuaren testuinguru zehatzean ikusiko ditugu fenomenook azterketari motzetik heltzen diogunean, baina orain, teoriaren talaian gauden honetan, begiratzeko modu zabal eta orokorra hobetsiko dugu, bi fenomeno horietako tasun nagusiak identifikatu nahian. Bi fenomenoen arteko loturak eta zubiak ere begiz joko ditugu hondarrean, horrek eman diezaion guztiari batasun eta uztardura usainik.

2.1.- Bigarren hizkuntzaren jabekuntza

Euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duen eta lankideekin euskaraz egiteko ohitura eraiki duen langilea dugu ikerketaren abiapuntu. Hizkuntza berri batez jabetzea ez da, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula, ordu eta ahalegin asko eskatzen dituen jardun luzea baizik. Jardun horren erraietan diren jabekuntza eta ikaskuntza ikasbideei so jarriko gara ataltxo honetan, ikuspegi orokor baten bila ibilita.

Jabekuntza eta ikaskuntza

Stephen Krashenen psikolinguistak³ hizkuntza-informazioa prozesatzeko –eta ondorioz hizkuntza gaitasuna lortzeko ere- bi prozesu bereizi zituen: *jabekuntza* eta *ikaskuntza*, hurrenez hurren.

Praktikoa, erabilerari lotua eta ez-kontzientea litzateke hizkuntzaren *jabekuntza*. Egoera komunikatiboan murgilduta egon eta input ulergarria luzez jaso ondoren, gure baitan berez sortzen den hizkuntza-gaitasuna bera, hain zuzen ere. Hari esker, zitzu batean datozkigu ahora hitzak eta esaldiak, eginak eta osatuak etorri ere, geuk sortu gabe. *Hitz-jarriotasunaren* iturria da. Ez hori bakarrik: egokitasunaren zaindari ere bada gaitasun hori. Esaldia ongi ala gaizki osatuta dagoen, esan eta berehala ohartzen gara. Ez ohi digu alarma gorririk pizten ongi esanak, baina belarrira jotzen digu okerrak, atsekabe puntu bat erantsiz gehienetan. *Hizkuntza-sena*, sentsazio edo sentimendu bezalako bat da, gorputz-gogoan ongi sumatzen duguna: “hau gaizki dago”, “hau ongi”, “honek beste horrek

³ KRASHEN, S. (1987): *Principles and practice in second language acquisition*. London: Prentice-Hall International. *Jabekuntza eta ikaskuntza* hitzak dira, hurrenez hurren, Krashenek erabilitako *acquisition* eta *learning* adigaei guk emaniko euskal-ordainak.

baino hobeto jotzen dit belarrira". Esana zaintzen du senak, baina ez da gauza azaltzeko hautu baten alde zergatik egiten duen, edo zergatik errefusatzen duen beste hura. Ez du arrazoirik edo araurik erabiliko horretarako, egokitasunari buruzko sentrazio biziak baizik.

Ikaskuntza, indukzio eta dedukzio prozesu logikoen emaitza da, eta arau, definizio, printzipio eta informazio-unitateen ezagutza esplizituan oinarritzen da. Arreta kontzientearen eremua da. Arrazoiaren eremua. Hizkuntzari buruzko ezagutza teorikoa: metahizkuntza. Hizkuntzaren gaineko kontrol kontzientearen erantzulea. Monitorearen irudia erabili zuen Krashenek ezagutza kontzientearen sistema irudikatzen. Ordenagailuan bezala, honetan ere monitorera agertzen zaizkigu behar ditugun informazioak. Behar dugu, horretarako, tekla egokiak ezagutu, informazioa bilatzen jakin, eta nola ez ba, erabilgarri suertatuko bazaigu, gordeta dugun informazioa berreskuratzeko bideak gogoratu. Horrenbestez, hizkuntzari buruzko arau sintaktiko, lexikal, morfologiko, pragmatiko, testuala eta abarren jakintza multzoa da arrazoizko ezagutza. Itzulpen mekanismoa honetan oinarritzen da: hau da, lehen hizkuntzan esaldiak sortu eta hari hizkuntza ezagutza formalak aplikatuz bigarren hizkuntzazko esaldi bihurtu.

Praktikan maiz ikusten ditugu bata eta bestea hitzun baten jardueran, baina komeniko litzateke biak edonola ez nahastea. Hobe genuke baldin biak izaera ezberdineko prozesuak balira bezala hartuko bagenu. Informazio esplizitua erabiltzen duena arrazoizko ezagutzaz baliatzen ari da. Era naturalean hitz egiten duenari, aldiz, berezko ezagutzatik datorkio hizkuntza-gaitasuna. Izaera ezberdineko ezagutzak dira. Berezko ezagutza eskuratzea *jabekuntza* prozesuaren ardura da, eta harena bakarrik. Arrazoizko ezagutza *ikaskuntzari* lotzen gatazkitan eskuratzen da eta ez besterik. Ez dira elkartrukagarriak. Berez, batetik ez da bestea eratortzen. Bakoitzak du bere-bereko prozesua.

Hizkuntza- inputa

Nola jabetzen da bigarren hizkuntzaz pertsona bat? Jabekuntza prozesuaz ari gara, noski. Hortaz, (i) egoetatik (i + 1) egoerara igarotzeko, beharrezkoa da (aski ez bada ere) eskuratzailerak (i + 1) dituen hizkuntza mezuak ulertzea. Horri esaten zaio, hain zuzen ere, *hizkuntza-inputa ulertzea*. Dena dela, hemen, ulertzeak zera esan nahi du zehazki: eskuratzaileraren arreta esanahia ulertzeari emana dago, ez mezuaren formari.

Hizkuntza-inputak, jabekuntza bultzatuko badu, honako lau ezaugarri hauek eduki behar ditu berekin:

(1) Ulergarri izan behar du

Komunikazioak funtzionatzen duela esan nahi du honek. Ez du, agian, den-dena ulertuko eskuratzailerak, baina ez da beharrezkoa ere komunikazioari eusteko. Hari nagusiari segitzearekin nahikoa izan daiteke hastapenetan. Solaskideak, bere aldetik, eta hastapenetan bereziki, ahaleginak egiten ditu normalean hizkera ulertterazagoa erabiltzeko.

(2) Arreta edo interesa erakarri behar du

Hau ere komunikazio egokiaren funtsezko puntua da. Komunikazioa, itxurazkoa ez baina benetakoa izan dadin, bi aldeek gaian interesaturik egon behar dute. Horri eskerrak, solaskideen arreta mezuaren esanahira noratzen da, eta ez formara.

(3) Osoa izan behar du eta ez helburu gramatikalen arabera sailkatuta

Oinarrizko hizkera ere hizkera osoa da. Bere erraztasunean sistema osoaren funtsezko ezaugarriak gordetzen ditu. Hizkuntza elementu guztiak elkarri nola egokitzen zaizkion ageri egiten da input egokian. Alegia, hizkuntzaren dinamismo osoa azaldu behar du inputak.

(4) Ugari izan behar du

Luzez egon behar du ikasleak hizkuntza ingurugiroan murgildurik, hizkera arrotzari esanahia emateko eta lehenengo hizkuntza hipotesiak sortzeko. Hizkuntzaz jabetzea ez da bat-bateko kontua. Denbora behar du prozesu horrek.

Aldagai afektiboaren eragina

Ez da aski (beharrezkoa bada ere) mezu ulergarriak jasotzea jabekuntza aitzinatzen. Aldarte emozional zabalaz jokatzeko ere beharrezko du eskuratzailerak. Hizkuntzaz jabetzeaz arduratzen den burmuin-zatia ukitzera iritsiko bada input ulergarria –eta ondorioz bere mekanismoak aktibatzea lortuko badu- zirrara egokien jabe behar genuke une horretan eskuratzailerak. Zirrarak, aldarreak, sentierak, horiek guztiak iragazki baten antzera egiten dute ezagutzazko mekanismoekin. Hala, iragazki hori meharra denean -aldarte atseginen presentziagatik esaterako- bizkortu egiten dira ezagutzazko mekanismo batzuk. Era berean, moteldu egiten dira iragazkia lodia denean.

Ezaguna da beldurrak –eta hari lotutako aldarreak: estutasuna, larritasuna, konfiantza eza, arriskuen susmoa, eta abar- zenbait ezagutzazko mekanismo geldiarazteko –edo moteltzeko bederen- duen ageriko eragina.

Haserrearen familiaren eragina ere ezaguna dugu. Erresistentziaz, amorrazioz, gogoz kontra, eta antzeko aldarrez egindako jarduerak barne-iragazki lodia ezarri ohi dute gogoaren eremuan.

Kontuak kontu, esan dezagun errazte aldera, *larritasun txikiko egoerak*, neurrikoak alegia, behar-beharrekoak direla input ulergarriak jabekuntzaren burmuineko mekanismoak abiatuko baditu.

Ikaskuntza kontzientearen zeregina

Hizkuntzari buruz arrazoien bidez ikasitakoa *monitore bat* balitz bezala erabil daiteke. Bere funtzio nagusia izango litzateke orduan berezko hitz-jarioa ikuskatzea. Beraz, bigarren mailako jarduera da monitorearen lana, hitz-jariora den lehen mailako jarduerarekin alderatuta. Ama hizkuntzan sorturiko hitz-jarioari itzulpen-arau batzuk aplikatu eta bigarren hizkuntzaren adierazpenik ekoitz dezake monitore sistemak. Bateko, zuzentzaile, eta besteko, itzultzaile lanak egin ditzake arrazoizko sistema honek.

Monitorea erabiltzeko baditugu gutxieneko baldintza batzuk: 1) ikasleak arreta hizkuntza formetara bildu behar du, 2) aplikatu beharreko arauak ezagutu behar ditu ikasleak, eta azkenik 3) eragiketa horiek guztiak egiteko denbora eduki behar du.

Idatzitakoari errepasso bat ematen diogunean normalean hiru baldintza horiek ematen dira eta testua edertzeko, txukuntzeko edota zuzentzeko laguntza estimagarria eskain dezake monitorea. Badira, ordea, solasaldia bezalako beste komunikazio jarduera zuzenak, non monitorea erabili nahi izateak lagundu baino gehiago kalte egiten duen. Ahozko komunikazio zuzenean ez dago normalean monitorea erabiltzeko baldintza onik. Formari ez baina mezuari lotzen zaizkio normalean solaskideak. Bestalde, solasaldiaren erritmoa bizia izanik, apenas izaten duten hizkuntzari buruz pentsatzeko astirik, are gutxiago aplikatu beharreko araua konplexu samarra izanez gero.

Monitorea erabiltzeko hiru modu estandar aipa daitezke:

(1) Monitorearen gehiegizko erabilera

Monitorea asko erabiltzen duenak etengabe kontrolatu nahi du hitz-jarioa. Jo eta su dihardu lehenengo hizkuntzatik bigarren hizkuntzara itzuliz, edo esan beharrekoa adierazi aurretik gramatika arauen argitan epaituz.

(2) Monitorearen erabilera orekatua

Hainbatek horretarako baldintza egokiak dituen erabiltzen du monitorea eta ez bestetan. Esate baterako, idazlana errepassatzeko denbora dagoenean, arau gramatikal gutxi eta errazak aplikatzeak denbora gutxi eskatzen duenean, plazerezko irakurketaren ondoan azterketa linguistiko edo literarioa egiten denean.

(3) Monitorearen erabilera murrizta edo erabilerarik eza

Hainbat jendek ez du ezertarako erabiltzen monitorea. Hitzak eta esaldiak etorri bezala, ikuskatzailetza kontzienterik egin gabe, kanporatzen ditu halakoak. Ama hizkuntzan ahoz dihardugunean, gehien-gehienetan horrelaxe dihardugu. Bigarren hizkuntzaren ikasleen artean ere badira horrelakoak. Hainbat kasutan ikasleak ez du arau gramatikalik ezagutzen eta horregatik ezin du kontzienteki monitorea erabili. Beste hainbatetan, araua ezagututa ere, ahaztuta du nonbait, edo ez du gogorik gogoetan aritzeko.

Komunikazio estrategiak

Mintzamina izango litzateke orduan entzumenaren ondorio bat. Entzumena beti doa mintzamenaren aurretik. Eskuratzaillea hizketan hasten denean, ordea, hainbat zailtasun agertzen zaizkio, mugatuta baititu oraino hizkuntza gaitasuna. Halakoetan, nola edo hala egin behar die aurre muga horiei, komunikazioari eutsiko badio. *Komunikazioa lortzeko estrategiak* erabili ohi dira eskuratzailleak.

Bi multzo nagusi aipa daitezke estrategia horiek kontuan hartzen ditugunean. Bateko dauzkagu *bitartekoei mugatutako estrategiak* deritzanak. Euskaratzaillea dagoeneko dakienarekin moldatzen da

aurrera egiteko, zailtasunak gainditzeko. Bigarren hizkuntzaren erabilera zuzenean oinarritzen da. Dagoeneko asimilatuak dituen bitartekoak erabiltzen ditu ikasleak. Zerbait modu batez esaten ez dakienean beste modu bat bilatuko du hura adierazteko. Era honetako bitartekoak dira: hala nola, adibideak ematea, argibideak agertzea, itzuli-inguruak egitea, deskribapenak egitea, ideia bera azaltzeko adierazpide ezberdinak aukeratzea. Jabekuntza prozesua zuzen-zuzenean bizkortzen dute hauek guztiak.

Besteko dauzkagu *bitartekoak zabaltzeko estrategiak* deritzanak. Multzo honek unean-uneko gaitasunetik harago bultzatzen du ikaslea. Horrenbestez, nor bere barruan une horretantxe eskura ez dituen bitartekoak inon bilatzekotan kanpoan bilatu behar ditu. Gramatika, hiztegiak eta halakoak izaten dira orduan helduleku nagusiak. Gauzak horrela, ikasleak bigarren hizkuntzan dituen hutsuneak estaliko ditu gramatika ezagutzaz eta itzulpen mekanismoaz. Ama hizkuntzaren hitzak maileguan hartzea ere era honetako estrategia da. Bigarren hizkuntzaren garapenean baino gehiago norbere ama hizkuntzaren erabileran oinarritzen dira estrategia hauek. Horiek horrela, ikaskuntza prozesutik jabekuntzatik baino gertuago daudela esan daiteke.

Gizarte- estrategiak

Eskuratzailereantzat komunikazio egoeretan jardutea hil ala biziko kontua denez gero, orduan komunikazio egoerak ugaltzeko balio duten estrategia guztiak mesedegarri suertatzen zaizkio berari, bai eta komunikazioaren ulergarritasuna hobetzeko laguntzen dizkietenak ere, hizkuntzaz bizkorrago jabetzeko.

(1) Komunikazio jardunak ugaltzeko estrategiak

Ikasleak bere gizarte trebetasunak erabiliz (sinpatia, irekitasuna, ekimena, ausardia...) bertako hitzuneekin harremanetan jarduteko egiten duen oro da atal honetako. Zer esanik ez, gizarte harremanetan iaioak direnek traketsak direnek baino aukera gehiago izango dituzte komunikazio egoeretan murgiltzeko. Jabekuntza prozesua bizkortzeko hemendik etor daitekeen onura begibistakoa da.

(2) Inputaren kalitatea hobetzeko estrategiak

Jatorrizko hitzunik azkarregi, ilun eta arrotz hitz egin badu, sarri eteten da komunikazioa, ikasleak ezin baitio jarraitu, ez baitu aski ulertzen. Horrelakoetan, ikasleak jasotzen duen hizkuntza inputa ez da egokia izaten *jabekuntza* prozesua mamitzeko. Hain muturreko egoera izan gabe ere, beti dago elkarrizketetan ikasleak ulertzen ez duen kontu bat edo beste. Halakoetan, badago isilik egotea, esanahia sumatzeko irudimena erabiltzea, edo kontua pasatzen uztea. Baina, badauka ikasleak jarrera aktiboa hartzea, eta zer edo zer egitea mezua zehazkiago ulertzeko. Eskaera esplizitua egin diezaioke orduan solaskideari hizkera moldatzeko, polikiago hitz egiteko edota, esaterako, adierazpen ulergaitza beste era batez adierazteko. Hau guztia jabekuntza prozesuaren hobe beharrez.

(3) Komunikazioaren berezkotasuna babesteko estrategiak

Komunikazio saioa komunikazioa da. Arreta mezuan eta esanahian dago iltzatuta. Hizkuntza tresna da, baina ez fokua, ez luke arreta bereganatu behar. Bereizketa hau zaintzeari begira daude estrategia ugari. Esate baterako, ulertzen ez direnak papertxo batean idatzi komunikazio saioa oztopatu gabe, agian geroko saio berezi batean argitzeko (hiztegian begiratuta, norbaiti galdetu...) Komunikazio saioak eta hizkuntza saioak ongi bereizteko estrategiek laguntzen dute monitorearen erabilerak kalte egin ez diezaion jabekuntza prozesuari, bai eta jabekuntza hutsuneak erabiltzea ikaskuntza prozesua gidatzeko ere.

Idea nagusiak aurrekoa biribiltzeko

Bigarren hizkuntzan hitz egiteko behar den gaitasuna jabekuntza prozesuaren berezko emaitza izaten da. Prozesu hori gizarte-jardura baten testuinguruan ematen da: hots, benetako komunikazio egoeratan. Eskuratzailerak solaskideengandik mezu ulergarri ugari neurriko larritasun giro batean jasotzen duenean ematen dira prozesu horretarako baldintzak egokiak.

Hizkuntza modu kontzientez ikasteak ere hizkuntza-jakintza prozesatzen du gure burmuinean, baina besterik da honek erabiltzen dituen gogo-prozesuak eta informazioa gordetzen dituen formatuak. Informazioa hau ez da hitz-jarioratasunaren iturri, baina jario hori ikuskatzeko eta moldatzeko erabil daiteke, bai eta itzulpen-arauen bidez esaldiak ekoizteko ere. Prozesu hau kontzientea da eta aurrekoak baino askoz ere denbora gehiago behar izaten du bere lana egiteko.

Jabekuntza prozesua izango genuke, orduan, hizkuntza gaitasunaren muina eta ildo nagusia. Horregatik, hain zuzen ere, hau aurrera daramaten baldintzak zaintzeak egundoko garrantzia du. Ikaskuntza kontzientea, bestaldetik, haren ondoan era osagarrian dagoen prozesua izango litzateke. Tentuz ibili beharko litzateke azken honek behar duen neurria gairi ez dezan, jabekuntza prozesua lotu eta giltzatu baitezake. Puntu honetara iritsi ezean, lagungarria da, inondik ere.

2.2.- Bigarren hizkuntzaren jokaera ohiko bihurtzea

Hizkuntzaren erabilera du oinarri hizkuntzaren jabekuntza kontzeptuak, gorago ezaugarritu bezala. Oroz gainetik, eguneroko jardueratan eta benetako elkarrizketetan ematen den gizarte-ekintza dugu hizkuntza-harremana. Erabileraren elikagaiak bizkortzen du eskuratzaileraren gaitasuna. Ez hori bakarrik ordea: bihurtu ere, ohiko bihurtzen du solaskideen hizkuntza jokaera. Erabiliaren erabiliaz, solaskideak hartara ohitzen dira arian-arian.

Hartara, bada, datozen lerroetan komunikazio-jarduna bera aztertuko dugu atzera berriro, baina oraingoan hizkuntza jokaeraren eta hizkuntza ohituraren ikuspegitik.

Taldetasunaren printzipioa

Hizkuntza jokaera ezin da ulertu norbanakoaren kontu hutsa bailitzan. Hizkuntza jokaera, edozein jokaera bezala, elkarrekintza mota bat da, kasu honetan beste norbanakoekikoa. Batek bultzatuko du norabide batean, eta besteak onartuko dio ala ez. Jokaerak ñabartuko dira elkarri egokitu beharrenden ondorioz.

Ez hori bakarrik: normalean harreman finkoen amaraunetan gaude harrapaturik. Denbora gehiena talderen baten eraginpean bizi gara. Lantoki batean, ehunka izan daitezke balizko harremanak lankideen artean. Baina eguneroko jardunean, askoz ere aukera gutxiago hezurmamitzen da. Izan ere, harreman-sare berezituak sortzen dira, komunikazio-ildo zehatzak gauzatzen dira. Taldeak eta azpitaldeak sortzen dira han eta hemen, kideen arteko harremanak lehenetsita direlarik.

Taldetasunaren printzipioak, hartara, *taldeetan bizi garela* azpimarratu nahi du, ezer baino lehenago. Aurrez aurreko harremana bikote batean izan daiteke talderik txikiena. Hiruko, lauko, eta gehiagoko taldeak ere badira. Harreman informalak, gehien-gehienetan, ez oso talde handitan gertatzen dira.

Baina, garbi gera dadin, talde kontzeptua darabilgunean hemen, oso modu hertsian erabiltzen ari garela. Taldea eta jendartea ez da guretzat gauza bera. Jende multzoa edo jendartea, oro har esateagatik, da eremu bat oraino egitura gutxi duena, edo agian batere ere ez duena. Ordea, talde bat, txikia izanagatik, ongi markaturik du kideen arteko harremanaren nolakoa: hots, egitura dago, hizkuntza-arau finkoak daude, ohiturak badira, historia ere bai.

Osoatasunaren printzipioa

Taldeak, orduan, *eremu sistemikoak dira* guretzat. Hau da: nortasun, izaera eta ordena jakin bat dute. Talde edo osoatasun baten nortasuna ez da kideen (edo zatikien) batuketa hutsa, nahiz eta kideek berea den zerbait eman dioten taldearen izaerari. Osoatasuna da funtsezko ezaugarria, zatikiak ondoriozkoak dira.

Taldeak sistema egituratuak dira. Arautuak daude kideen arteko harremanak eta zerikusi handia du horretan taldearen egituraren kide bakoitzaren posizioak. Kide guztien eragina ez da iguala taldearen bizitzan.

Testuinguru jakin batean kide batzuen arteko harreman-bide finkoek ematen diote nortasuna talde bati, bai eta egonkortasuna ere. Kideen jokaerak (baita hizkuntza jokaera ere) testuinguru horretara daude egokituta, eta ezin dute hortik atera besterik gabe, arau baten -gehienetan inplizitua- haustura izango litzateke-eta.

Horrenbestez, hizkuntza-erabileraren esparrua eremu egituratuta edo sistemikoa da, eremu hori bikote baten harremanari dagokiona bezain eremu txikia izanda ere. Harreman informaletan ematen diren arau inplizituek eremu egituratuak sortzen dituzte, araubide esplizituek harreman formaletan egiten duten antzera. Arauen zorrotasunean maila ezberdinak egon daitezke eremutik eremura.

Hizkuntza ohitura batetik besterako ibilbidea

Ibilbide hori eskematikoki adieraziz gero, ondokoa eskainiko genuke lau mailatan bereizirik:

(1) Abiapuntuko egoera

Osoatasun zaharra finkatuta zegoeneko

(2) Legamiaren unea
Aurreko osotasuna urratu zenekoa

(3) Berregokitze egoera
Osotasun zaharraren eta berriaren arteko tirabirak gertatu zirenekoa

(4) Finkatutako egoera
Osotasun berria azkenean finkatu zenekoa

Lehenengo eta laugarren mailek *egoera egonkorrak* dakarzkigute gogora. Batean, hizkuntza bat zen ohikoa; bestean, hura ordezkatzera etorri den beste hizkuntza finkatu da. Bigarren eta hirugarren diren tarteko mailek *aldatzearen dinamismoa* adierazten dute. Lehendabizikoan haustura modukoren bat ematen da, eta ondorenean, hura guztia kudeatu behar da, behar diren egokitzapenak eginez, ahalik eta azkarren bestelako egoera egonkor batera iristeko.

Egoera egonkorrak

Hizkuntza batean, hastapenean, eta beste hizkuntza batean, bukaeran, nolana ere, ikuspegi sistemiko batetik begiratuta egoera berberak dira bi-biak: hots, arau eta jokabideak finkatu direneko garaiak, egoera egonkorra ekarri dutena. Une horietan hitz daiteke soilik ohituraz. Izan ere, ohiturak (*hizkuntza-ohiturak*) jokabide finkoak dira eta ez besterik.

Batean zein bestean, *hizkuntza-arau finkoa* dago taldearen eremuan, gehienetan inplizitua baina eragingarria bete-bete, kideek euren jokabideaz sortutakoa, eta atzera kideen jokabidea bera agintzen duena.

Arauk, arau den neurrian, ezin du onartu bere nagusitasuna auzitan jarriko duen jokabiderik. Haren ondoan, onik onenean, salbuespeneko jokabideak onar ditzake, baina beti ere haiek arauaren iraupena arriskuan jartzen ez duten bitartean. Egoerak egoera, erabatekoa edo ez hainbestekoa izan daiteke arauaren zorrotasuna, baina zorrotasuna beti zorrotz. Malgutasunak zorrotasunari gailentzen hasi orduko, egoera ez-egonkorraren eremu labainkorretan murgiltzen da taldea; ordezkapen gorabeherak hasten dira.

Erdarazko egoera egonkorrak erdara du erabatekoa edo nagusi. Euskarazko egoera egonkorrak euskara du erabatekoa edo nagusi. Hizkuntza-arau batek, sasoiko den bitartean, beti borroka egingo du bere nagusitasunari heltzeko, beti egingo dio aurka ordezkatu nahi duenari. Arauaren bitartekoak dira honako hauek: ohituraren inertzia, talde presioa, berriarekiko erresistentzia, eta abar.

Egoera ez-egonkorrak: aldatzeko garaiak

Hizkuntza arau egonkorrek beti dute aldamenen aldaketaren arriskua (edo aukera). Gaur egonkor eta finko dena, bihar bertan kili-kolo egon daiteke. Ez da gehienetan hori gertatzen, baina bai dago beti arrisku-aukera hori ezkutuan bezala eta zelatan erne.

Tarteka, ordea, ezkutuan zegoen aldaketaren hazia azalera agertutakoan, eremuaren ohikotasuna kolokan jarri eta aukera berria zabaltzen da eremu osoa beste arau baten inguruan egituratzeko. Osotasun zaharraren sendotasuna kolokan jartzen duen ezusteko egoera honi, *legamia unea* deitu diogu, zeren, legamiak nola, ezuste honek ere aukera bailuke hizkuntza-arauaren ogi berria harrotzeko.

Ezusteak nondik-nahi etor daitezke. Esate baterako, aldaketa nork bultzatuta datorren hartzen badugu irizpide, ikusten dugu honako aukera hauek eman daitezkeela, besteak beste:

- (1) Kide bat, bere kabuz, araua urratuta beste era batez jokatzeko hasten da.
- (2) Kideak ados jarrita bestela jokatzeko hasten dira.
- (3) Testuingurua aldatuta ezinezko egiten da arau zaharraren arabera jokatzeko. Ezintasuna, erabatekoa ala zatikakoa izan daiteke. Arau berria eraikitzeko bidea zabaltzen da.

Kontu egin diezaiozun, ezusteak handik edo hemendik etorrira ere, haien eraginak talde-eremu osoari heltzen diola. Hori eman ezean, ez da aldaketarik abiatzen, talde-araua berregokitzea edo berregituratzea talde-ekintza denez gero, kide bakar batek abiatuta ere.

Legamiaren uneari darion errota ere aintzat hartu beharreko osagaia da, jakiteko aldaketa zein norabidetan abiatuko den. Xume-xume esanda, bi aldaketa mota antzeman daitezke:

(1) Azaleko aldaketa

Hizkuntza-arauaren nagusitasuna kolokan ez jarri arren, nolabaiteko egokitzapenak eragin dituen aldaketa litzateke lehenengoa. Aldaketa, kontu txiki, murriz eta itxurazkoetan igartzen da gehiago kontu sakon eta egiturazkoetan baino.

(2) Sakoneko aldaketa

Hizkuntza-arauaren nagusitasuna kolokan jarri eta beste hizkuntza-arau batez ordezkatzera iritsi den aldaketa izango genuke bigarrenkoa. Hemen, oroz gainetik, egitura bera ukitzen duten gertaerak eman dira, eta hori sakonean bezala, azalean ere ikusten da.

Hizkuntza-ohituraren aldaketari dagokion prozesua azken honetako delat garbi ikusten da. Hain da errotikakoa aldaketa, ez-ohiko indarra behar baitu legamiaren egitekoa egin duen faktoreak. Haietako bi aipatuko genituzke orain:

(1) *Sentiera sakonen indarra*

Hauek dira era batera jokatzera garamatzaten bazter ezinezko barru-eraginak. Hartarako beharra, premia eta batzuetan larritasuna ere ageri da. Honetan guztian, jakina, badaude mailak eta mailak. Premia haren bizitasuna ez da beti berdina.

Sentiera hauek jokabide bihurtzekotan, norbanakoak balorazio korapilatsu bati (ez horregatik kontziente eginda) ekin behar izaten dio. Honako osagai hauek egon ohi dira dilindan balorazio horren erraietan: 1) desiragarritasuna (ekintzari norabidea ematen diona), 2) egingarritasuna (ekintzari bidea ematen diona), eta 3) eramangarritasuna (ekintzari adorea ematen diona). Hiru eremu hauetako uztarketatik sortu ohi da ekintzarako garamatzen (edo ez garamatzen, edo erdi-ipurdi garamatzen) sentiera orokor bat.

(2) Gizartearen ezinbestekotasunaren indarra

Norberak barruan ez duen indarra (arau baten eraginpean egonik zaila baita arauaren logikatik ateratzea, eta are gehiago arau horrekiko kexa berezirik ez dagoenean), kanpotik sor daiteke gizartearen indarraren bidez: hala nola, taldearen presioa, agintzen dutenen agindua, erakunde eskakizunak, egoeraren halabeharra, eta abar.

Aldez formalak eta aldez informalak izan daitezke indar hauek. Lehenengoan artean, hizkuntza-eskakizunak har ditzakegu, esate baterako. Bigarrenengoan artean, gurea ohikoa ez den hizkuntza batean hitz egiten digun hitzun elebakarra. Biek ala biek indar ikaragarria izan ohi dute guk berez aldatuko ez genukeen jokabidea aldarazteko.

Ideia nagusiak aurrekoa biribiltzeko

Badago dinamika etengabea egoera egonkorren eta ez-egonkorren artean talde baten osotasun sistematikoari begiratzen diogunean. Taldeak, multzo egitura gabeak ez direnez gero, egonkortasunera makurtzen dira kideen arteko elkarrekintzak lotzeko ahalik eta energiaren gasturik txikiena eginez. Hortik sortzen dira hierarkiak, egiturak, eta era berean hizkuntza-araua.

Egoera ez-egonkorak behar-beharrezkoak agertzen zaizkigu egonkortasun batetik beste egonkortasun egoera batera pasatzeko. Ez edozein aldaketak sorrarazten du behar adinako indarrak hizkuntza-arau bat ordezkatzeko. Sentiera biziek horretarako indarra izan dezakete, benetan handiak direnean. Usuago izaten da “gizarteak” sortutako ezinbestekotasuna halako prozesu baten abiarazle izatea. Nola nahi ere, eraginaren luze-zabalak beti hartu beharko du eremu osoa jomuga, arau baten eraginpean dagoen eremu osoa, hain zuzen ere. Izan ere, hizkuntza-arau zaharra baztertzeko zein berria eraikitzen eremu horretako protagonista guztiek elkarri egokitzearen emaitza baita, zerbait izatekotan.

Legamia unea esan diogu hizkuntza arau zaharra egitekorik gabe gelditu eta berri baten eraikuntzari emateko talde bateko kideek egiten duten hastapeneko ahaleginari. Ahalegin erabakigarri horrek hizkuntza-jokaeraren urak hizkuntza bateko isurialdera isuri beharrean bestearen isurialdera jauzteka ekarri ohi du berekin.

2.3.- Hizkuntzaren jabekuntzaren eta ohitzearen arteko loturak

Ugari dira bien arteko loturak, prozesu bat zein bestea hizkuntzaren erabilera oinarritzen direlako. Esan genezake, orduan, kontzeptuen ordena elkar trukatu, ezen, hizkuntzaren jabekuntzak hizkuntza

ohitze prozesua bizkortzen duela, bai eta hizkuntza ohitze prozesuak jabekuntza bizkortzeko baldintza egokiak sortzen dituela ere.

Prozesu hauek eman daitezke testuinguru artifizialki prestatuetan: hala nola, euskaltegi batean, mintzapraktika talde batean, eta antzekoetan. Halakoetan eraikitzen den hizkuntza arauaren irismena testuinguru haietaraino iristen da gutxienez, baina ez halabeharrez zabaltzen handik kanpoko testuinguruetara. Baina, hori guztia, benetako gizarte-eremuetan ematen denean: hots, benetako harreman sareetan, eguneroko jardunean finkatuta dauden amaraunetan, orduan jabekuntza eta ohitze prozesuek hizkuntza haren gizarte-normalizazioa (finkatzea, nagusitzea, egonkortzea) ekarri ohi dute berekin.

Hizkuntzaz jabetzea eta ohitzea batera joanik, hartara egokitzen dira norbanakoen aldarreak, hautemateak eta usteak. Hizkuntza horrek norbere barrenean balio positiboa landatzen du. Hizkuntza horretan jardutea naturala bihurtzen da erabilgarria izateaz batera, edo agian, kasu askotan, erabilgarria izatearen ondorioz egiten da naturala hain zuzen ere.

3.- KASUEN AURKEZPEN LABURRA

3.1- A1 KASUA (ISABEL)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Herri administrazioa
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %75-100

Isabeli gutxi falta zaio, nolabait, ikas-prozesua borobiltzeko. Pasa den ikasturtean bigarren mailaren agiria eskuratu zuen, eta orain lanean ari da hirugarren maila ere erdiesteko (EGAren parekidea dena alegia). Egun, alkatearekin-eta bilerak euskaraz egiten ditu, hala berean udal langile gehienekin eta herritarrekin ere. Hortaz, egoera ia normalizatua erakusten du euskararen erabilerari dagokionez. Hau guztia bost urteko trantsizio batean. Orain dela bost urte lanpostu hau onartu zuenean, jakin bazekien lana perfiatuta zegoela hirugarren hizkuntza eskakizunarekin. Bere hizkuntza maila, ordea, bajua zen. Euskara teknikariak, ondorioz, euskara plan berezia diseinatu behar izan zuen berarentzat alkatearen aginduz. Orduz geroztik ahalegin handia egin behar izan du Isabelek oraingo puntura heltzeko, eta esan daiteke azken helburua ia-ia eskura duela. Harro sentitzen da bera, -eta ez da gutxirako-, oraino egin duenarekin.

3.2.- A2 KASUA (JULEN)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Lan-kooperatiba
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %75-100

Eskualde euskaldun samarrean kooperatiba handixko batek duen planta bateko langile montadorea da Julen. Egun, nahiko hitz-jario polita du euskaraz, doinua eta hizketamoldea bera ere oso herrikoiak. Igtetzen zaio euskaltegia baino gehiago kalea eta lantokia bera izan dituela ikastoki. Orain dela bost bat urte gertatu zen inflexio puntua lantokian, berak eskatu zuenean euskarazko eskolen antolakuntza. Handik aurrera agerian gelditu zen kideen aurrean berak euskararekiko zuen aldeko jarrera, eta askoren harridura ere handia izan zen konturatzean euskaraz nola edo hala hitz egiteko gaitasuna bazuela. Une honetatik aintzina hasi zitzaizkion hizkuntza harremanak aldatzen. Denetan aipagarriena Jaime bere saileko arduradun nagusiaren jokaera, gertaera haren berri eduki bezain laster euskaraz hasi baitzitzaion era sistematikoan. Egun, lantokiko euskaldun guztiekin euskaraz egiten ez badu ere, lankide mordotxorekin egin du jauzia euskararen aldera.

3.3.- B1 KASUA (ANE MIREN)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Herri administrazioa
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %50-74

2003. urtetik hona Osakidetzako Ospitale batean dihardu Ane Miren Gonzalezek antolakuntza zereginetan sartuta, giza-baliabideen alorrean. Egun, ahaleginetan dabil zeregin formaletara aldatzeko honez gero harreman informaletan hainbat eta hainbat lankiderek inportatu duen euskararen normalizazioa. 2008. urtean EGA agiria eskuratu ondoren, buru-belarri dabil orain bere burua prestatzen euskara teknikoaren alorrean, hartara behartuta ez egon arren, benetan berak nahi duela lan eremu guztietan, formalean ere, euskaraz erabateko normaltasunez jardun.

Ane Mirenek, euskara dela eta, berekin dakarren "motorettoa" ez da lanaren ondorio, txikitatik dakarren aldekotasuna baizik. 2002. urtean jaio zen bere semettoa, baina aurretik ere, haurdun zegoela jada, erabakia hartu zuen: ume horren ama hizkuntzak euskara behar zuen. Handik gutxira, 2003 urtean, Ospitalean hasi eta, bere harridurarako, euskaraz erabili ohi zuten lankide askotxorekin egin zuen topo. Honek areagotu egin zuen euskararekiko zuen berezko grina. Bere lanpostua hizkuntzaren aldetik perfiatuta ez egon arren, lotu egin zitzaion bera euskara ikastearekin bertako Hizkuntza Eskolan. Berehala, euskaraz hasi zitzaizkion gertuko lankide euskaldun batzuk, jakin zutenean euskarazko eskolak hartzen hasia zegoela. Harrez geroztik, ikasi eta erabili, erabili eta ikasi, oso elkarri uztarturik joan zaizkio biak Ane Mireni.

3.4.- B2 KASUA (IRENE)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Enpresa pribatua
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %50-74

Irene, bederatzi eta sei urteko bi alabatxoren ama duzue, herriko ikastetxe bateko jantokian begirale gisa lan egiten duena. Lanaldia hiru ordu eta erdikoa baino ez du. Euskara beharrezkoa du lanerako eta horrek, zalantzarik gabe, bultzada eman dio euskalduntzen prozesuari. Hala ere, gure irudiko, bere euskalduntzearen gako nagusiak lanetik kanpo (kalean, familian, herrian...) daude lantokian bertan baino gehiago

Familia erdaldun batetik etorri arren, beti izan du euskararekiko grina berezia. Euskara eta euskal kultura beti izan ditu gogoko. Txikitatik garbi izan du euskalduna (euskara duena) izan behar zuela. Euskara-duna izan nahi zuen. Eta ziur zegoen, gainera, lortuko zuela. Bizitokia biziki maite du eta bere irudipenean bere herria eta euskara oso lotuta daude. Bizitokiarekin guztiz identifikatuta egonik,

bertakoa izateko euskara falta zuela sumatu izan du beti berak. Baina ederki asko kitatu ditu zor haiek, bai horixe!

Irenek lan gehiena bere kabuz egin du euskarari dagokionez: kalean, jendearekin, entzunez. Euskaltegira hurbildu baino lehen ere zegoeneko euskaraz egiten zuen, -“ondo ala txarto” berak dioen bezala- alabakin, senarrarekin eta jende askorekin. Horregatik, euskaltegira agertu zenean, oso denbora gutxi behar izan zuen EGA titulua eskuratzeko. Elkarrizketa egin genionean oso hizkera herrikoi ederra zerion ahotik jario politean, hain zuzen ere eskola batean ikasten ez den doinu eta adierazkortasunaren jabe zen.

3.5.- C1 KASUA (LUIS ALBERTO)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Administrazio publikoa
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %25-49

Luis Albertok, egun, zerbitzuburu gisa dihardu. Hamaseiren bat kidek osatuta dagoen zerbitzu honek orain urte batzuk jaso zuen Bikain Agiria, euskararen normalizazioan egindako aurrerapen handia ezagutzeko.

Batetik, Luisen bilakaera, eta bestetik, zerbitzuarena, biak oso uztarturik etorri dira prozesuan zehar. Luisek, egun, normaltasunez dihardu euskaraz lankide gehienekin, eta laugarren hizkuntza eskakizunaren jabe egin zen orain dela urte batzuk. Baina abiapuntua oso urruti zegoen. Lantoki honetara hurbildu zenean -honezkero hogeit bat urte badira- erdaldun peto-petoa zen, eta lehenengo urratsetik bertatik abiatu behar izan zuen ikas-prozesua. Zerbitzuak, era berean, antzeko eraldaketa ezagutu du denbora tarte honetan. Hasiera hartan, hamaseitik bi edo hiru kide besterik ez ziren euskaraz egiten zutenak. Egun, ordea, gehienek hizkuntza horretan dihardute; euskara dute lan-hizkuntza nagusia.

3.6.- C2 KASUA (JABIER)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Enpresa pribatua
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %25-49

Jabierren ikas-prozesua burutu gabea da artean. Hizkuntza aldaketaren prozesua abiatuta dago, baina ezin jakin oraindik finkatuko den ez den. Jabierrek orain hiru urte hartu zituen lehenengo euskarazko eskolak, mailarik bajuenetik hasita. Bultzada, kaletik etorri zitzaion, ez lantokitik (ez nabarmenkiro bederen). Eta kaletik esaterakoan, gogoan dugu bera umeeekin eta helduekin dabilela musika irakasle

gisa herri euskaldun samar batean, lanetik kanpo. Bertan, beharra zuen euskaraz egiteko, bereziki umeekin ibili beharra zuenean. Hortik etorri zitzaion, beraz, euskararen ikasteari ekiteko bultzada nagusia. Eta hasi ere, bertan hasi zen, herri horretan, auto-ikaskuntza sistema batean. Oso lanpeturik ibili ohi denez, ezin denbora asko atera euskaltegira joateko, eta autoikaskuntza sistema honen bidez formula egokia topatu zuen ikasten hasteko. Formula honakoa da: asteen bi egunetan hurbildu behar du euskaltegira, batean tutorearekin aritzeko, eta bestean talde batekin jarduteko; asteburuetan lan batzuk eramango ditu etxean egiteko. Horrela ibili da bi ikasturteetan: 07-08 eta 08-09. Eta gero, utzi egin zuen. Oraingo utzi egin dio eskolak hartzeari, bertara itzultzeko beharra atzera sumatu duen arren.

Oinarrizko euskara erabilia lortzen du ideia nagusiak komunikatzea. Maiz uzten ditu esaldiak borobildu gabe, bereziki aditza zehaztu behar duenean. Tarteka ere, igartzen zaio xehetasunak ematerakoan hitzak falta dituela, eta halakoetan, hitzen orde, keinu eta doinu adierazkorak erabiltzen ditu. Motela du jariora, eta maiz tartekak hartzen ditu hitz egokiak bilatzeko, edo adierazpide zuzenak aurkitzeko. Solaskideak, pazientzia pixka bat edukita, ez du gehienetan arazorik izaten Jabierrek esan nahi duena ulertzeko, nahiz eta tarteka beharrezkoa eduki irudimenaz (edo testuinguruaren ezagutzaz) baliatzea haren adierazpena osatzeko.

Lantokian euskaldun ugari inguruan eduki arren, bakarrarekin, Juanmikin, lortu du aski konfiantza euskaraz aritzeko. Iaz hasi ziren euskaraz. Juanmik berak larruan bertan bizi izan du euskalduntze prozesua, aspaldian bada ere. Bere burua eskaini zion Jabierri euskaraz egiteko, ohartu zenean haren jarrera aldatetaz, eta bereziki, jakitean euskarazko eskolak hartzen hasia zela. Asko estimatu dio jokaera hori Jabierrek Juanmiri.

3.7.- D1 KASUA (ESTHER)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Herri administrazioa
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: % 0-24

Esther 2000. urtean hasi zen lanean herri administrazioan, informatika talde baten kide gisa. Bere egiteko nagusietako bat izango zen beste sail bateko kideekin batera lan egitea, informatika alorreko laguntza teknikoa eskainiz. Izan ere, sail horrek eskuan zeuzkan proiektu askok euskarri elektronikoen beharra zuten: Euskalterm, toponimia datu basea, hiztegi elektronikoa, info-ingenieritza linguistikoaren proiektuak, etabar. Euskararen erabilerari lotutako proiektuak ziren horiek gehien-gehienak, eta horiek izango ziren beste kide batzuekin batera berak kudeatu beharreko proiektuak. Sail horretako kideek, bestalde, euskaraz egin ohi zuten era normalizatuan, bai ahozko zein idatzizko lan harreman formal eta informaletan, bai kanpoko bezero eta hornitzaileekiko harremanetan ere. Hortaz, euskal gune normalizatu bat topatu zuen Estherrek lanean, zonalde linguistiko erdaldunean

egonik ere. Bera baina, ez zen artean euskaraz hitz egiteko gauza: *“hasiera horretan nire gaitasuna oso bajua zen: bigarren urratsa-edo”*. Erronka itzela zuen aurrean, dudarik gabe.

Egun, ordea, hamar urteren bueltan, hortxe dugu Esther, EGA agiriaren jabe eta saileko kide guztiakin erabateko normaltasunez euskaraz egiten, idatzizkoan bezala ahozkoan ere. Informatika taldeko giroan, gainera, berak dihardu orain euskararen suspertzaile. Eta gutxi balitz, etxean ere semetxoari euskaraz egin ohi dio, euskara lanetik etxera eramanda.

Ikas-prozesu nagusia lantokian bertan egin du, lanean eta lankideekin euskaraz arituz, txikitik handira, oinarrikotik konplexura. Ez du euskaltegiaren aparteko beharrik izan ibilbide horretan, ezta hizkuntza era sistematikoan ikasteko beharrik ere. Erabilerari sakon lotutako ikas-prozesua izan da berea. Prozesu horrek estuki uztartu ditu, eta batera ehundu, euskaraz egiteko ohitura eta euskaraz egiteko gaitasuna. Euskara ikastea eta euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, ez dira bere kasuan bi prozesu bereizirik izan, bat bera baizik.

3.8.- D2 KASUA (OIER)

Ikerketa-kategoria:

Hizkuntza harremana aldatu duena
Lan-kooperatiba
Eskualdeko euskaldunen dentsitatea: %0-24

Oier, Gasteizen kokatuta dagoen lan-kooperatiba handi samar bateko langilea da. Salmenta ondoko teknikaria gisa dihardu. Egun, euskaraz hitz egiteko ez du zailtasun nabaririk, nahiz eta berak aitortzen duen lan kontu teknikoetan zailtasunak eta zalantzak tarteka nabaritzen dituela. Gaitasun hori ikastetxean emaniko urte luzeetan eskuratu zuen. Lehendabizi B ereduko herri ikastetxe batean eginiko lehen hezkuntzako ikasketetan, eta ondoren, euskara hutsez eginiko bigarren mailako ikasketetan.

Euskararekin ikastetxeetan izaniko harremanak lagundu zion euskaraz egiteko gaitasuna eskuratzen, baina apenas izan zuen eraginik bere hizkuntza ohituretan (euskaraz egiteko ohituretan hain zuzen ere). Ikasleen arteko harreman informalak erdara hutsez zirela dio berak. Koadrilako lagun ia guztiak euskaldunak izan arren, erdaraz hitz egin izan du beti berak haiekin hogeita zortzi bat urtetan. Etxean ere erdaraz, gurasoak erdaldunak izanik. Salbuespen bakarra: bere anai zaharra. Hark euskaltegian euskara ikasten hasi eta Oier anai gazteari eskatu zion euskaraz egiteko. Garai haietatik gaurdaino dirau euskarazko harremanak beren artean. Esan daiteke, hortaz, inguruetan euskararen presentzia (edo agian hobeto esatea: *“euskararen oihartzun isila”*, adierazpen poetikoa onartuko balitz) oso gertu izan arren, erdaraz ziharduela eguneroko harreman informaletan.

Orain dela hiru urte esperientzia erabakigarria bizi izan zuen lantokian euskara plana ezartzearekin batera. Plan horren eraginez irauli zitzaizkion hainbat eta hainbat hizkuntza harreman lankide euskaldunekin. Berak dio gutxi direla euskaldunak lantokian, baina haiekin beti euskaraz egiten duela

egun, baina tartean erdaldunik ez badago. Eta aldaketa hori ez omen da berea bakarrik izan, bere lankide euskaldun gehienena baizik.

laz, beste esperientzia erabakigarri bat bizi izan zuen TELP tailerren inguruan, euskara planaren inizatibaz antolatuta hauek ere. Euskararekiko kezka areago piztu zion honek, hainbeste non berak hartu baitu inizatiba azken urte honetan koadrilako hainbat lagunekin euskaraz hitz egiteko, eta baita lortu ere. Oso pozik eta harro ageri zaigu berak emaniko aldaketa honekin.

4.- EMAITZEN IRAKURKETA

Datozen lerroetan, azterketak eman dituen puntu nagusiak biltzeari ekingo diogu. Bide nagusia edo enborra, elkarrizketatik ateratako testigantzek beraiek osatuko dute. Haien bidez saiatuko gara gure aztergaiari dagozkion gako nagusiak agerian jartzen. Datu kualitatibo hauek uztartuko dira, hala ere, eta ahal denean, elkarrizketatu guztiek beteriko galdetegiaren informazioarekin. Uztarketa horren bidez ahalik eta ikuspeirik osatuena eman nahi genuke. Datuen aurkezpenari hari interpretatzaile bat emateko gai nagusi bat aukeratu dugu multzo bakoitzeko.

4.1.- Euskara ikasteko bultzada

Hainbat kasutan, derrigorrez etorri da euskara ikasi beharra, kanpotik etorritako agindu argia. Hala gertatu da, adibidez, lanpostuen hizkuntza-eskakizunak arautuak dituztenen kasuan. Honelakoetan ez zegoen ihesbiderik.

“Gainera, garai hartan, bageunden batzuk euskara lanerako exigentzia bezala, baldintza bezala geneukana” (Luis Alberto)

“Euskara oso lotuta zegoen lanpostuari, beharrezkoa zen” (Isabel)

Derrigortasunak ez du ezinbestean berekin adiera negatiborik: ezarpenarena, alegia. Hautematearen kolorea aldatzen baita jasoleak darabilen lentinearen arabera. Eta hala, neurri zorrotzari **zentzua** aurkitzen dionak **beharrezkotasuna** aitortuko dio derrigortasunari: adiera baikorra, eraikitzailea.

Eta, zentzuaren bila ibilita, **zirrarako oroitzapen atseginetan** aurkitu dituzte batzuek bidea.

“Baina ez dakit zergatik, edo ama euskalduna nuelako, edo txikitako kontuak... ez dakit zer zela eta, baina barruko grina hori bageneukan batzuk. Beste batzuk ez zeukaten grina hori, beraientzat inposaketa zen, edo derrigorrezko gauza bat, laugarren eskakizuna lortu eta gero ahaztu” (Luis Alberto)

“Nik eskolan beti erdaraz eta etxean ere bai. Baina gero, beranduago, nire amak euskara ikasi eta EGA atera zuen. Hori niretzat oso garrantzitsua izan zen”. “Nire lehenengo motibazioa izan zen umea. Nahi nuen nire umeak euskaraz hitz egitea, hasieratik eta gustura, normaltasunez (...) Haurdun nengoela pentsatu nuen garrantzitsua zela nire umearen ama hizkuntza euskara izatea. Eta orduan libretik hasi nintzen ikasten, bakarka, eta Bakarka metodoarekin” (Ane Miren)

“Txikitatik garbi eduki dut euskara ikasiko nuela. Hamar urte nituela andra batek aurpegiratu zidan ea nik zergatik parte hartzen nuen eskolako abesbatzan ez banuen euskaraz batere ulertzen. Une hartan ez nintzen konturatu zergatik esan zidan andre horrek hori. Gero, ja, hark arrazoia zuela konturatu nintzen, baina ostras, gelditu nintzen apur bat amorratuta. Esperientzia horrek asko markatu ninduen” (Irene)

Beste hainbatetan, orain-oraingo ingurutik etorri zaie euskara ikasteari zentzua bilatzeko indarra: hau da, ingurunean euskaldun ugari izatea, euskara bizirik egotea, hainbat bezerorekin euskaraz egin beharra, eskualde euskaldunetan lan egin izana, eta abar. Euskara derrigortuta egoteaz gain beharrezkoa zen. Baina, hori horrela izanda ere, ez da beti gertatzen jendeak ongi erantzutea, hartara gogotik egokitzea, egoera zabaltasunez hartzea. Hori gure protagonisten meritua izan da: nolabait, **inguruarekiko sentiberatasun** handia erakutsi dute.

“Alde batetik behartuta nengoen, baina beste aldetik, ingurunea euskalduna zen, txosten guztiak, idatzizkoa, dena. Orduan, beharrezkoa zen euskaraz egitea. Nik lehenengo momentutik ikusi nuen ez zela aukera bat, beharrezkoa zela baizik, nahiz eta nik maila baxua izan” (Esther)

“Eta hemen berriro zerbait berria topatu nuen: hemengo lankide askok euskaraz egiten zuten normalean, bai kanpoan eta bai lanean. Hori niretzat oso berria zen” (Ane Miren)

“Musika irakasle nabil herri txiki eta euskaldun samar batean, eta aktibitate horrek eskatzen du euskaraz egitea, bereziki umeei erakusterakoan. Orduan, hor beharrezkoa zen, eta horregatik hasi nintzen ikasten bertako euskaltegian autoikaskuntza modulu batean” (Jabier)

“Inguruneak ere garrantzi handia izan du. Euskal giroa sumatzen da lankideen artean. Alegia, euskara modu naturalean erabiltzen da lantokian. Herritarrek ere normalean euskara erabiltzen dute udal langileekin zerbitzuren baten bila etorrira. Orduan niretzat euskara oso gauza naturala zen ingurune honetan, eta euskaraz hitz egitea normala eta beharrezkoa zen” (Isabel)

“Eta gero euskal ingurua aipatu behar da. Hori garrantzi handikoa, ezinbestekoa izan da. Esaterako Begoña eta Margariri esker. Eta ez bakarrik gure zerbitzu barruan, baina hemen herrialdean (Gipuzkoa) ere, agian beste arlotan ez, baina gure arloan nahiko handia da euskararen erabilera, zinegotzietan, klubekin. Ikusten zenuen jendea euskalduna zela, eta azken finean zerbitzu bat eskaintzen ari garela, eta ezinbestekoa zela (euskaraz egitea). Agian beste arlo batean ez zara konturatzen beharrezkoa dela, baina bai ni konturatu nintzen gure arloan naturala zela guk euskaraz egitea eta ikastea” (Luis Alberto)

Kasuak kasu, hausnarketa orokor batzuk egiteko garaia izan daiteke oraingoa. Zerrenda gisa agertuko ditugu esan beharrekoak:

- 1) Euskara ikasteko bultzada nondik datorren gogoan hartuta, hiru tipologietara ekar ditzakegu ditugun datuak: a) Norberak hala nahi duelako, euskararekiko dituen zirrarako oroitzapen atseginek bultzatuta; bada halakoetan halako larritasun pertsonala, barneko hutsune baten sentsazio bizia; b) Funtsean norberak hala nahi duelako, baina horretarako kanpoko pizgarri baten bultzada behar izan duena: eskaintzak, eskaerak, aukerak; c) Kanpotik etorritako derrigorrezko egoera batek pertsona behartu duelako: hizkuntza eskakizun formala izan daiteke abiaburua, baina, baita ere, hizkuntza naturalki erabiltzen den ingurune batean murgildu izanak sorturiko behar naturala.

- 2) Euskara ikastea diogunean, ez da beti-beti gauza bera fenomeno horren atzean gertatzen dena. Euskara ikasteaz batzuek eskolara joatea ulertzen dute. Beste batzuek euskaldunekin euskaraz entzun-mintzatzen hastea (halako bi kasu baditugu).
- 3) Denek lortu dute *zentzua ematea* kanpotik zetorkien arauzko derrigortasunari. Eta zentzua ematea lortu dute, inguruan euskal inguru bizia sumatu dutelako, euskara erabiltzen zuten euskaldunak topatu dituztelako. Gauzak horrela, zentzu naturalez bete zaie eskakizun formala. Euskara ikastea, orduan, betebeharrak formal hutsa barik jardun beharrezko bilakatu da. Baina, beraiek eman diote zentzua inguruan zeukaten hizkuntza errealitate horri, lankide ugari ez bezala hizkuntza egoera bera edukiagatik. Horrek esan nahi du beraiek euren barnetik nolabaiteko sentiberatasun berezia izan dutela inguruko faktore horri kasu egiteko. Sentiberatasun hau, batzuen kasuan, lozorroan zituzten zirrarako oroitzapen atseginek elikatu dute. Beste batzuen kasuan, ikuspegi pragmatiko, errealista eta ireki batek.
- 4) *Berezko derrigortasunak*, euskaraz egiten duen eremu normalizatu batean murgiltzerakoan gertatzen denak, bere baitan indarra du funtsezko bi osagai batean biltzeko: saihestezinezko egoera batean hizkuntza jakin bat erabiltzea beharrezkoa dela sentitzea. Egoera honek luze irauten badu, eta pertsona bigarren hizkuntzazko komunikazioari heltzeko gauza bada, orduan, aurrekoaz gain, zirrarako esperientzia atseginen iturri bilakatzen da. Tasun hauek neurri ertaineko ingurugiroetan (sail batean esaterako) ematen da, baina baita aurrez aurrekoetan ere (euskaldun eta euskaldun-gai baten artean sortzen den hizkuntzazko bikoteetan bezala). Batean zein bestean antzeko gizarte-fenomenoak gertatzen dira.
- 5) Erabilera errealean murgildu eta irauteko, ezinbestekoa izango da pertsonak zirrarako oroitzapen atseginetan eta zentzuaren hautemate sentituan oinarritzea. Ordea, euskara ikasten hasteko ez dira horiek ezinbestekoak. Prozesuan zehar, motibazioak eraldatzeko aukera izaten da baldintza batzuk ematen direnean. Erabileran murgilduta aurrerapausoak ematea, esperientzia txiki arrakastatsuak izatea, horiek guztiek elikatzen dute jardulearen motibazioa. Prozesua bera, orduan, motibazioaren hornitzaile nagusietako bat bihurtzen da.

Behaketa eta hausnarketa hauek guztiak baieztatu egiten dira galdetegiari elkarrizketatuek eman zizkieten erantzunak aztertuz gero. Hiru multzotan banatu ditugu elkarrizketatuen erantzunak atal honi dagozkionak: ikasteko motibazioa, ikastearen helburua eta ikastearekiko jarrera. Multzo bakoitzaren berri jasotzeko galdetegian erabilitako itemak agertu ondoren, irakurleak aukera izango du datuak ikusteko taula banatan.

Tauletan, datuak 1-4 eskala batean emanda daude honako esanahiarekin: Bai (1), Gehienbat bai (2), Gehienbat ez (3), Ez (4).

Datu hauek, lehendabizi, joera nagusia nahi dute agerian utzi: baietzarako joera edo ezetzarako joera. Eta bigarrenez joeraren intentsitatea: osoki edo gehienbat.

IKASTEKO MOTIBAZIOA

1.1.- Euskara ikasi nuen lantokian ezinbesteko baldintza zelako

1.2.- Euskara ikasi nuen lankideek euskaraz egiten zutelako

1.3.- Euskara ikasi nuen nik neuk nahi nuelako

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel ⁴
1.1	4	4	3	-	1	1	3	
1.2	3	2	3	-	2	1	2	
1.3	2	1	1	-	2	1	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Guztiek, enpresa pribatuetakoak izan ala herri erakundeetakoak izan, komunean dute barruko nahi bat euskara ikasteko.* Horrek halako zabalatasun bat ematen die guztiei ikaste prozesuari erresistentziarik gabe ekiteko. Horretan kokatuko genuke marko teorikoan aipaturiko “zirrarako iragazkia”. Hizkuntzaren jabekuntza prozesuaren atea, hain zuzen ere.
- 2) Herri erakundeetako langileen kasuan euskara jakitea ezinbesteko baldintza izanik horrexek eraman ditu euskara ikastera. Hauxe izango litzateke ageriko bultzagilea. Baina horrekin batera, barrenean zuten nahi bat, euskara ikasteko grina-edo, piztu egin zaie hurrenean. Inguruan lankideen artean sumatu duten euskaradun giroak ere ikasi behar horretara bultzatu ditu, edo gutxienez eragin osagarria izan du.
- 3) Enpresa pribatuetako langileen artean euskara ikastea ez zen ezinbesteko baldintza, eta Julenen kasuan ez ezik, gainerakoetan lankideen hizkuntza-jarduerak ere ez zuen hartara bultzatzen. Kasu askotan euskara planaren barruan eskainitako euskarazko eskolak izan dira langile horiek euskara ikasteko zuten nahiaren ernarazleak.

IKASTEAREN HELBURUA

1.4.- Euskara ikasten nenbilela, lankideekin euskaraz hitz egitea nuen helburu

1.5.- Euskara ikasten nenbilela, lan-eginkizunak euskaraz egitea nuen helburu

1.6.- Euskara ikasten nenbilela, bezeroekin euskaraz hitz egitea nuen helburu

1.7.- Euskara ikasten nenbilela, edozein euskaldunarekin euskaraz hitz egitea nuen helburu

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
1.4	2	2	2	-	-	1	2	
1.5	2	4	2	-	-	2	2	
1.6	3	1	2	-	-	1	3	
1.7	2	1	2	-	-	1	1	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Langile hauek euskara ikasteen dagoeneko bazuten erabilerarako joera nabaria helburuetan edo asmoetan ere.* Lan eremuetan euskara erabiltzea bazuten euren buruan ikasteari heldu ziotenean. Baina ez soilik lan eremuetan, bestelako eremuetan ere: edozein euskaldunekin euskaraz hitz egitea helburu gisa gogoan zutela ondoriozta daiteke datuen argitan. Estherrek ez du erantzunik eman, baina azaldu egin digu horren arrazoia. Berarentzat lankideekin eta bezeroekin euskaraz hitz egitea –eta gainerako jarduerak- ez ziren helburu edo geroko asmoak, lehenengo unetik aurre egin behar izan zien egoerak baizik. Gauzak horrela, orduan,

⁴ Isabelen galdetegia ezin izan dugu jaso; hortaz, ez dira bere datuak agertuko ez taula honetan ez hurrengoetan.

Estherren kasuan ere esan dezakegu erabilerarekin zuela euskalduntze prozesua zeharo lotuta.

IKASTEAREKIKO JARRERA

1.8.- Gogo onez heldu nion euskara ikasteko erronkari

1.9.- Ziur nengoen euskara ikasiko nuela

1.10.- Denbora asko eta ahalegin handia eskaini nion euskara ikasteari

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
1.8	2	2	1	-	1	1	1	
1.9	3	1	1	-	1	1	1	
1.10	2	2	1	-	2	1	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) Marko teorikoan hiru adierazle aipatu genituen jarrera baten osagarri: *desiragarritasuna, egingarritasuna eta eramangarritasuna. Hirurak ala hirurak aktibatuta ageri zaizkigu kasu gehienetan*. Hurrenez hurren, euskara ikasteari ekiteko gogo edo aldarte ona, norbere gaitasunarekiko konfiantza, eta azkenik, denbora eta ahalegina eskaintzeko prestutasuna. Jabierren adierazle bakar bat, euskara ikastea lortuko zuelakoa alegia, dugu salbuespen bakarra. Bera da, aztertutako guztien artean, oraino euskalduntze prozesua burutu ez duen bakarra, oraindik hitz egiteko zailtasun nabariak ditu-eta.

4.2.- Harreman finkatuak aldatzeko aitzakiaren beharra

Behin hizkuntza ohitura bat finkatuz gero, jokaera bera behin eta berriro ematen da, bai behintzat ez ohiko zerbait gertatu arte. Horrexegatik beragatik aitzakiaren bat behar izaten da sarri eremu zahar finkatuan zerbait berria ager dadin, aukera bat, hain zuzen ere, arian-arian eremu osoa berrantolatzeko.

Aztertu ditugun kasuetan, garbi antzean ikusi dugu aitzakiaren funtzio hori euskara planek bete dutela maiz. Euskarazko eskolak antolatzerakoan, kide batzuek lehenengo aldiz agertu dituzte gainerako kideen aurrean euskara ikasteko eta erabiltzeko jarrera eta gogoia. Aitzakia eman du, beraz, gordean zeuden gauzak (euskararekiko gogoia eta beharra) argitara emateko. Elementu berri horren aurrean hainbat lankide euskaldunek aldatu izan du hizkuntza jokaera, hain zuzen ere, jokaera berregokitu egin du besteek ekarritako berrikuntzaren aurrean. Normalean, sistema batean, -eta hizkuntza harremanen sarea ere halakoxea da-, kide baten mugimendu esanguratsuak besteen berregokitzea dakar berekin ezinbestean. Beste kontu bat da eragindako mugimenduek (berregokipenek) zein intentsitate eta iraupena izango duten. Faktore gehiago kontuan hartu behar dira hori ebazteko.

Beraz, euskarazko eskolan hasi izana eta horren berri jakiteak euskaldun-gairen eta euskaldunaren arteko harreman-aldaketaren lehen aldarria izan da kasu askotan.

“Jaime konturatu zen nire mailaz euskarazko klaseetan hasi nintzenean. Berak ikusi zuenean nik banuela nibela bat euskaraz moldatzeko hasi zen beti euskaraz egiten”. (Julen)

“Orduan, nik komentatu egin nuen hemen lankideekin nola hasita nengoan euskara ikasten, eta orduan esan zidaten: “ba, hemendik aurrera beti euskaraz hitz egin behar dugu”. (Ane Miren)

“Nik Juanmiri eta beste batzuei esan nien hasita nengoela euskara ikasten, eta orduan berak eskatu zidan euskaraz egiteko”. (Jabier)

“Ez dakit ba, ez nion inoiz galdetu Aizpeari zergatik hasi zitzaidan euskaraz. Igoal berak bazekienez ni euskaltegian nengoela, ba ni laguntzeko egingo zuen”. (Irene)

Beste kasu batzuetan, ez da eskola izan aitzakia eman duena, baizik eta euskara plana bera abiatu izana eta hark sorturiko zurrunbiloa.

“Hori izan zen txip aldaketa sakona: euskara planaren ezarpena hemen, zeren hor baita konturatu ginen nork zekien euskaraz eta nork ez, orduan ja gure kontuz zegoen beraiekin euskaraz hitz egitea ala ez”. (Oier)

Beste batean, esaterako, artean eskola konturik ez zenean ere, lankide euskaldunak inizatiba hartu zuen harremana hasiera-hasieratik euskaraz izan zedin. Izan ere, euskaldun-gai horrek euskaltegira jo gabe, lankideekin euskaraz eginez, ikasi baitu, hizkuntza murgilketaz.

“Berak (Rosa, euskalduna) hasieratik argi zeukan. Proposamena berak egin zidan, hasieratik esan zidan: “nik euskaraz egingo dizut, zuk lasai eta hasiko zara pixkanaka nahiz eta mailarik ez izan”. (Esther)

Beste kasu batean, euskaldun-gaiak euskara-eskoletan hasi izanak ez zuen berez ekarri inguruko euskaldunek, ez batzuek sikiera, hari euskaraz egiten hastea. Euskara teknikariak, orduan, estrategia bat prestatu zuen hori eman zedin: konplize bat bilatu. Hala, gertuko lankide euskaldun batengana jo eta harekin adostu zuen handik aurrera euskaraz egingo ziola euskaldun-gaiari, eta hark egin ere.

“(Nerea udal euskara teknikaria ari da hizketan) Eta oso garrantzitsua izan da hartu nuela brigadako baten konpromisoa edo konplizitatea berari euskaraz egiteko, eta harekin pazientzia edukitzeko (kide hori Gorri da)”. (Isabel)

Kasu bakarrean ageri da euskaldun-gaia inizatiba nagusiaren jabe, eta lehenengo urratsa euskaldun batekin egin beharrean beste euskaldun-gai batekin eginda gainera

“Daniel euskara ikasten ari zen ni bezala. Arlo berean geunden biok, eta nahiz eta biok maila baxu eta eskasa izan, momentu batean erabaki genuen handik aurrera euskaraz hitz egitea”. (Luis Alberto). Baina hasierako mugimendu honen ondotik, berehala etorri zen euskaldun baten mugimendua. *“Begoña era garrantzi handikoa izan da. Orduan, ia hasieratikan, ikusi zuenean gutxieneko maila neukala, bera ja hasi zen euskaraz eta euskaraz”.*

Galdetegian bazegoen galdera pare bat inizatibaren alderdiari begiratzen ziotena. Jakin nahi genuen juxtu une honetan, marko teorikoan “legamia unea” izendatu dugun honetan, zeini egokitu zaion inizatiba hartzea bidea berria hasteko. Ondoren, emaitzak eta ondorioak.

INIZIATIBA

2.4.- Berak hartu zuen inizatiba nirekin euskaraz egiteko

2.5.- Nik hartu nuen inizatiba berarekin euskaraz egiteko

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.4	2	1	2	1	1	4	2	
2.5	3	1	3	4	4	1	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Euskarazko harremanari hasiera emateko inizatiba hartzea normalean euskaldunari (hizkuntza-gaitasunik handiena duenari) dagokio.* Julenek inizatiba biek hartu zutela esaten digu, baina, elkarrizketan kontatu zigun testigantzan oin harturik, honela ulertu behar genuke: Julenek euskarazko eskolak lantokian antola zitezen “inizatiba” hartu zuen; baina, euskaraz egiteko “inizatiba” Jaime lankide euskaldunak berak hartu zuen. Oierren kasuan, euskaldunen arteko harremana izanik ere, inizatiba hartu zutenek Oierrek berak baino euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa zuten, eta antza denez, euskaltzaletasun ageriagokoa.
- 2) Salbuespen bakarra Luisena dugu. Baina haren kasuan, euskaraz aritzeko izan zuen lehen solaskidea, Jaime, bera bezala euskara ikasten ari zen lankide bat zen. Hortaz, parekide zeuden hizkuntza-gaitasunari dagokionez.

4.3.- Egiturazko uztardura: taldetasuna

Aitzakia edo inizatiba kide batek ala besteak, euskaldun-gaiak ala euskaldunak, bietako batek har dezake, edo zergatik ez biek batera sinkronian. Horrek ez du axolarik, ikuspegi sistemiko batetik behintzat. Benetan azpimarratu beharrekoa da eremu zaharrari berrikuntza baten batek ekarri behar diola.

Eta behin zirimola berriak hautsak harrotuz gero, uztarduraren miraria eman behar da, euskaldun-gai baten eta euskaldun baten arteko uztardura egiturazkoa hain zuzen ere. Ados diren bi muturrak aldebereko dantza bakarrean.

Euskaldun-gai bat behar da, batean, euskara ikasteko eta hitz egiteko gogoia duena eta ahalegina egiteko prest dagoena. Eta, bestean, euskaldun bat, aurrekoari euskaraz egiten diona eta komunikazioa eman dadin erraztasunak ematen dituen (bereziki pazientzia erakutsiz, eta input ulergarria emanez). Hauek lirateke gutxieneko baldintza kolektiboak euskarazko harreman berria eman dadin. Ez dira baldintza asko, baina ez da beti erraza izaten denak batera ematen. Hala eta guztiz ere, hauek gabe ez dago harremana uztarterik. Eta honelako harreman bat uztartu gabe ezin da hizkuntza-erabilerako jauzia eman, ez eta hizkuntza-jokaera ohitura izateraino garatu ere.

Gure kasu guztietan, hutsik egin gabe, eman dira baldintza hauek. Euskaldun-gaien inguruan beti agertu da euskaldun euskaltzale laguntzailearen bat, euskaraz eginez, euskalduntze prozesu naturalari sendotasunez eutsi diona. Euskaldun-gaiek, beren aldetik, erronkari jarrera onez heldu izan diote, konfiantza giro batean, eta lotsak eta beldurrak bazter batean utzita, zailtasunak zailtasun, komunikazioari helduz.

Gorri izan du Isabelek euskal solaskide eta lankide
Jaime izan du Julenek
Lupe eta Bego izan ditu Ane Mirenek
Aizpea izan du Irenek
Begoña izan du Luis Albertok
Juanmi izan du Jabierrek
Rosa izan du Estherrek
Andrea eta Martxelo izan ditu Oierrek

Funtsezko uztardura hau ematean abiatzen da benetako hizkuntza eraikuntza eta ohitze prozesua. Honek markatzen du beste norabaiteko inflexio-puntua. Honek eginarazten du jauzia hizkuntzaren benetako eremura. Euskaltegia entrenamendua bada, harreman hau benetako partida izango litzateke. Ezinbesteko pasabidea, beraz, saihestezina, hitzun bihurtzerainoko prozesuan.

“Txispa” eta “cuajar” hitzak erabili zituen Oierrek bi aldeen arteko uztarduraren beharra adierazteko

“Batzuekin lortzen duzu baina beste batzuekin ez, o sea bion artean, batetik, harreman ona egon behar da, baina, bestetik, egon behar da txispa hori: ha cuajao edo”. (Oier)

Noiz heldu diote funtsezko uztardura hau osatzeari guk aztertutako pertsonak? Ez da inor ere agertzen erabilerarako jauzia euskalduntze-prozesuaren azken mailetan egin duenik (euskara arruntaren jabe izanik, EGA agiria eskuratuta). Aitzitik, oinarritzko euskararen jabe zirenean bildu dute gehienek euskal solaskidearekin euskaraz egiteko ausardia. Badira ere hizkuntza gaitasun baxu-baxuarekin erabilerarako jauzia eman duen pertsonarik. Aipagarriena, Esther. Lantokian bertan euskaldunekin hitz eginez, euskaltegiara jo gabe, eta gaitasun baxu-baxu batetik hasita, burutu baitu ikas-prozesua.

Guk esango genuke euskarazko harreman egiazkoari heltzeko gakoa ez datzala euskaldun-gaiaren hizkuntza gaitasunean, haren (eta euskaldunaren) jarreretan baizik. Ziurtasun handiagoaren beharra duten pertsonak seguru asko atzeratuko dute pixka bat gehiago jauzi hau ausartago direnek baino. Era berean, hizkuntza zailtasunak gainditzeko komunikazio estrategia eraginkorragoak erabiltzen dituztenek goizago eman dezakete salto hau itzulpen mekanismoetan oinarritzen diren pertsonak baino.

Honen inguruko informazioa galdetegiaren bidez ere jaso genuen. Hona hemen emaitzak:

HIZKUNTZA-GAITASUNA

2.7.- Banuen ordurako gaitasun handia euskaraz egiteko

2.8.- Tarteko gaitasuna nuen euskaraz egiteko

2.9.- Apenas nuen gaitasunik euskaraz egiteko

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.7	3	3	2	2	4	3	3	
2.8	2	3	3	4	4	3	3	
2.9	3	2	4	4	1	2	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Euren hautematearen arabera, apenas zuten gaitasunik euskaraz egiteko lankide euskaldun horrekin euskarazko harremanari ekin ziotenean.* Irene da salbuespena, gorago lerrotan behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala. Oierren kasuan ezin dugu bera euskaldun-gaitzat jo gainerako kasuetako lagunak bezala, berak euskaraz baitzekien hizkuntza ohituraren aldaketaren prozesuari ekin zionerako. Jabierrek dio tarteko gaitasuna zuela, baina guk haren egungo gaitasunaz dugun ezagutzaren arabera, koska bat beherago kokatuko genuke hastapen horietan berak dioenetik baino. Hortaz, joera bezala esan genezake hizkuntza gaitasun txikia ez dela eragozpena izan euskarazko erabilera errealarari lotzeko eguneroko jardunetan.

KOPURUA

- 2.1.- Euskara erabiltzen hasi nintzenean, lankide askorekin hasi nintzen batera
- 2.2.- Euskara erabiltzen hasi nintzenean, lankide gutxi batzuekin hasi nintzen batera
- 2.3.- Euskara erabiltzen hasi nintzenean, bereziki lankide batekin hasi nintzen

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.1	3	2	3	1	1	2	3	
2.2	2	1	2	4	4	3	1	
2.3	1	1	2	4	4	1	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Bereziki lankide batekin hasi zirela euskara erabiltzen adierazten du joera nagusiak.* Hortxe eman zen ohikotasunaren lehen urratze esanguratsua. Estherren kasua berezia da. Berak ez du zuzenean adierazi lankide bakar batekin hasi zela, ze egia esan, bera murgildu baitzen euskara hutsez lan egiten zuen lan eremu oso batean, eta ondorioz, bakar batekin ez-baina lankide askorekin batera hasi zen euskaraz hitz egiten. Baina, hala eta guztiz ere, asko horien artean izan zuen aldamenen kide berezi bat prozesu horretan guztian bidelagun-lana txukun-txukun bete zuena. Oierrena da, berriro ere, kasu berezia, bere prozesua ez baita izan euskaldun-gai baten prozesua, baizik eta euskaldun batena. Hark, pertsona bakar batekin ez, baina lantokiko euskaldun guztiekin batera jardun zuen euskara-planeko lan taldeen bidez.
- 2) *Hala ere, ikusten da hizkuntza-erabileraren prozesua ez dela kasu gehienetan murriztu kide berezi horretara.* Denek abiatu dute prozesua lankide gutxi batzuekin edo askorekin. Ez dakigu datu hauen arabera nola izan den gertaeren hurrenkera, baina euren testigantzetan oinarriturik esan genezake kasurik gehienetan lehen urratsa kide bakar batekin eman dutela, eta horren ondorioz, baina asko luzatu gabe, euskarazko jokaera baztertera zabaldu dela.

HARREMANAREN NOLAKOA

- 2.24.- Lankide horrekin oso harreman gertukoa nuen
- 2.25.- Lankide horrekin ordu asko pasatzen nituen
- 2.26.- Lankide horrekin lan asko egiten nituen elkarrekin

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.24	2	2	1	2	1	1	2	
2.25	3	1	1	3	1	1	3	
2.26	3	3	1	2	1	1	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Joera nagusia da harreman gertukoa eta ordu kopuruz joria izatea. Hizkuntza ohitze prozesua gertukotasun eta maiztasun handiko gizarte-harremanetan eman da kasu gehien-gehienetan. Jabierrena da salbuespena, baina agian ez da kasualitatea kide honen prozesua besteen aldean atzeratuen dagoen prozesua izatea. Izan ere, Jabierren hizkuntza gaitasuna oraino oso mugatua da (zailtasun handiak sumatu genizkion elkarrizketan euskaraz modu arrunt samarrean hitz egiteko; tarteko gaitasun baxua duela esango genuke). Beste muturrean dugu Oierrena, beste salbuespena, baina honena ulertu beharra dago euskaldun baten prozesua bezala, non ordu gutxi elkarrekin pasa arren, ez zen zailtasun nabarmenik hizkuntza gaitasunaren aldetik behinik behin hizkuntza ohiturari buelta emateko.*
- 2) Ondorio bezala ez-baina susmo bezala aurreratu nahi dugu ondoko hausnarketatxo hau: euskalduntze eta ohitze prozesuek kide artean gertutasuna behar dutela egia dela badirudi ere, susmoa dugu kideen arteko “gehiegizko” gertutasuna (harreman afektibo handi samarra) emanez gero, zaildu egiten dela hizkuntza ohitze prozesua gertatu izana, halako harremanaren hizkuntza-araua iraultzeko askoz ere indar gehiago sartu behar denez gero. Oierrek Juantxorekin duen harreman-mota esaten ari garenaren adibide argigarria izan daiteke. Oierrek lortu du ia lankide euskaldun guztiekin hizkuntza aldatzea, baina ez ordea Juantxorekin berarentzat lankideaz gain adiskidea dena. Beste arrasto bat da Isabelena, berak hainbat gertuko lankideekin hizkuntza harreman aldatzea lortu baitu, baina ez ordea, gertukoaren artean gertukoarekin.

4.4.- Zirt edo zart: “hemendik aurrera euskaraz”

“Ba, nik uste dut tabakoarekin egiten den bezala, alegia, egun batetik aurrera erretzeari uztea, ez pixkanaka-pixkanaka, ba agian euskararekin berdin egin behar”. Iritzi hauxe eman zigun Estherrek euskara ikasten ari denarentzat aholku bat eskatu genionean.

“Hemendik aurrera euskaraz”, horixe izan da, beharbada, ia hitzez hitz, gehien errepikatu den esaldia, esperientzia horretan erabateko adostasuna balego bezala.

*“Eta orduan esan zidaten: “ba, **hemendik aurrera beti euskaraz** hitz egin behar dugu”. (Ane Miren)*

*“Nahiz eta biok maila baxu eta eskasa izan, momentu batean erabaki genuen **handik aurrera euskaraz** hitz egitea”. (Luis Alberto)*

*“Orduan konfiantza puntu hori duzunean, ba, esaten duzu: “beno, **hemendik aurrera euskaraz**, baina lasai”. (Juanmi Jabier lankidearen testigantza)*

*“Aldaketa izan zen **radical**”. (Oier)*

“Komunikazioa hemendik aurrera euskaraz” adierazpen honek bi irakurketa ditu euskaldun-gaiaren ikuspegitik begiratuta. Lehenengoan, entzumenean oinarritzen den jokaera ikusten dugu: euskaldunak aurrerantzean euskaraz egin diezaiola onartzen du euskaldun-gaiak, baina oraino ez du aski sendo ikusten bere burua hitz egiten hasteko. Bigarreanean, jokaera aktiboa ikusten dugu mintzamenean oinarrituta: euskaldun-gaiak prest ikusten du bere burua hitz egiteari ere eusteko. Euskaldun-gaiari dagokionez bi aldaera ikusten ditugu, baina euskaldunaren aldetik egoera bakarra: berak euskaraz

egin behar du ezinbestean, horrexek eusten baitio prozesuari. Euskara hutsezko jokaera hori hizkera egokitzuz erregulatzen du euskaldunak, horrela mezuak ulergarri izan daitezten.

Adierazpen hauek guztiek zerbait zorrotza adierazten dute: ebakidura, mozketak, inflexio-puntua, norabide aldaketa. Hizkuntza jokaeraren hautua, orduan, ez da graduala eta pixkanaka-pixkanakakoa, errotikoa eta bat-batekoa baizik. Berdin dio protagonistek hizkuntza gaitasun handia ala txikia izan. Kontua da hautu argia egitea: erdarazko ala euskarazko eremuan jokatu dugu? Zerbait hautatzea lehentasuna ematea da.

Behin hizkuntzaren hautua eginez gero, pixkanaka-pixkanaka etorriko da gaitasunaren hazkundera bera, txikitik handira etorriko da adierazteko gaitasuna, sinpletik korapilatsura lardaskatuko da mingaina, baina etapa horietako bakoitzean hizkuntzaren ura euskararen isurialdera makurtuko da. Hasierako etapatan euskaldunak hartuko du protagonismorik handiena, euskara ulergarrian hitz eginez. Euskaldun-gaiak isilune luzeak izango ditu hasiera horretan (bere lehentasuna ulertzean datza-eta), hizketa-txandak labur antzean egingo ditu, esaldiak normalean ez ditu gehiegi korapilatuko, eta ezin duenean erdaraz baliatuko du salbuespen gisa. Prozesua, oro har, euskararen isurialdean ematen dela baieztatu daiteke, hastapenetik bertatik ere. Neurri handi batean, esan daiteke erabilera ez dela prozesu baten azken etapa, baizik eta prozesuaren bihotza bera, zeinak hasiera, garapena eta azkena (halakorik badago) ematen baitio prozesuari. Erabilera erabileratik garatzen da.

Gauza gutxi dira giza kontuetan guztiz beltz edo guztiz txuri. Ezta honetan ere. Euskararen aldeko hautuaren zailak (halako baldintzetan zaila, euskaldun-gaiak ez baitu oraino euskaraz hitz egiteko gaitasun arruntik) gehienetan aldamenean behar izaten du kontra-peso orekatzailearen bat, prozesuaren hastapeneko lehen urratsetan batez ere. Funtsezkoena, une honetan, euskaraz jokatzearen aldeko hautua hartu izana da, baina berehala sortzen da prozesu berria autorregulatzeko beharra. Nolabait esatearren, hizkuntza jokaera malguak (elastikoak) agertu beharra izaten dute gehienetan (erdara erabiliz), hizkuntza jokaera zorrotzaren (sendoaren) itzalean (euskaraz egitekoa). Salbuespenak onartzen dira orduan. Malgutasuna onar dezake orain arauaren zorrotzak. Eta erdarazko hitzak, edo lokuzioak, edo pasarte batzuk tartekatzen dira nagusi den euskarazko emarian. Gehiegizko presioa askatzeko “segurtasun-balbula” bezala erabiltzen dute euskaldun-gaiak bereziki, baita tarteka euskaldunek ere. Era horretan erabiltzen den bitartean, ez dago arriskurik, eta bai onura handiak eransten zaizkio prozesuari, orekatzen baita gehiegizkoa (une jakin batean, euskara hutsez aritzea gehiegizkoa izan baitaiteke hizkuntza gaitasun mugatua duenarentzat). Prozesuaren homeostasiari laguntzen dio malgutasunak.

“Erabaki genuen beti euskaraz egitea, zenbaitetan ezinezkoa bazen ba beno erdaraz”. (Luis Alberto)

“Hasieran nik ez neukan nahiko mailarik, eta berak komentatu zidan: “nik hasieran beti egingo dizut euskaraz, zuk zeozer ez baduzu ulertzen esan, esango dizut gaztelaniaz edo beste modu batean, eta zuk ahal duzunean euskaraz esan, edo bestela gaztelaniaz”. (Esther)

“Oraindik orain, zerbait ezin dudanean euskaraz esan erdaraz esaten dut eta gero euskaraz jarraitzen dut”. (Julen)

Malgutasunak kalte egingo ez badu bi ezaugarri hauek behar lituzke berekin: 1) arau nagusiaren funtzionamendua auzitan ez jartzea, eta 2) salbuespenezko tresna gisa erabili ondoren arau nagusira itzultzeko gaitasuna (elastikotasuna) edukitzea. Malgutasuna, hiru tankeratan ikusi izan dugu, kasuak kasu:

- Elkarrizketa asimetrikoak: euskaldunak euskaraz egiten du, eta euskaldun-gaiak erdaraz.
- Ezintasun txikiak (hitzak, lokuzioak...) adierazteko erdaraz baliatzen da euskaldun-gaiak.
- Funtzio osoetan ezintasuna eduki (hainbat gai, adierazpen pertsonalak...) eta erdaraz baliatzen da euskaldun-gaiak.

Euren testigantzetan antzeman genuen hizkuntza arauaren argitze beharra, galdegai bihurtu genuen galdetegian, eta honako emaitza hauek jaso genituen:

HIZKUNTZA-ARAU

2.6.- Ordutik aurrera euskaraz egingo genuela gelditu ginen

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.6	2	1	2	1	1	1	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Oso garbi agertzen da den-denek zirt edo zart egin zutela hizkuntza-arau zaharra baztertu eta berria ezartzeko.* Jabierrek, Irenek eta Ane Mirenek emaniko ñabardurek adieraziko lukete hizkuntza-arau berria hartuagatik erdarari oraindik tartea ematen ziotela, salbuespen gisa bazen ere. Honek indartuko luke marko teorikoan aipaturiko ustea: hizkuntza-arauaren aldaketak funtsean izaera dikotomikoa duela alegia. Hizkuntza-dinamikaren urak gehienbat hizkuntza batera ala bestera isuri behar du bere emaria. Bestela esanda: araua ezartzen duen hizkuntza batek bide nagusia finkatzen du, eta beste hizkuntza salbuespen gisa erabiltzen da, gehienez ere.

HIZKUNTZA-JOKAERA

2.10.- Berak beti egiten zidan euskaraz

2.11.- Nik beti egiten nion euskaraz

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.10	2	1	2	1	1	2	2	
2.11	2	1	2	1	2	1	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Hizkuntza ohitze prozesuak aurrera egin bitartean bi solaskideek euskarari eutsi diote joera nagusi bezala. Joera nagusi horren barruan erdarak ere tokia izan du tarteka, baina salbuespen gisa edo bazterreko fenomeno bezala.* Honek indartu egiten du aurreko puntuan (2.6.) azpimarratu dugun ildo.

4.5.- Elkarri egokitzeko aldia

Harreman eremu berria finkatzeak lanak ekarri ohi ditu berekin. Lehenengo urratsak izan ohi dira zailenak, neketsuenak. Batetik, hor dira oraindik bizi-bizirik aurreko eremutik datozen inertzia guztiak (aurreko ohituraren berezko joera ahaltsu guztiak). Ate joka daude hor, ohartuan zein oharkabeen. Bestetik, eremu berria oraindik gaztea da, ikuskizun da, abentura, ate irekia. Harreman berria eraiki behar da, eta zailtasunak han eta hemen ageri ohi dira. Prozesu honek ardura, ahalegina eta denbora eskatzen ditu. Euskaldun-gaiaren hizkuntza gaitasun mugatuak ere, jakina, mugak ezartzen ditu. Entzumenean oinarritzen da prozesua normalean hasierako urratsetan, eta, testuinguru horretan, *poliki-poliki* datoz mintzamenerako urratsak.

“Ba, beldur hori kendu eta dena jarraian etorriko da. Beldurra galtzea oso garrantzitsua da. Eta gero poliki-poliki joatea” (Julen)

*“Hasieran beldurrez nengoen. “Egunon” eta punto. Ezin nuen gehiago esan. Baina beraiek, ez konforme horrekin, animatzen ninduten gehiago egiteko. Eta horrela, **astiro-astiro** hasi naiz beraiekin euskaraz hitz egiten” (Ane Miren)*

Elkarri egokitzeko aldi honetan era askotako estrategia eta moduak erabili ohi dituzte solaskideek. Halako ugari ikusi ahal izan ditugu guk ere gure kasuen azterketan. Haietako batzuk aipatu nahi genituzke.

Bikoteko kide euskaldunengandik hasita, aurrena ikusten dugu nola, usu, lasaitasun mezuak helarazten dizkion euskaldun-gaiari. Horrekin batera, animo edo gogo pizteko mezuak ere.

“Zuk azkenean bestearen aurpegia ikusten duzu eta hori ispilu modukoa da, hor ikusten duzu zuk esaten duzunak besteengan zer erreakzioa sortzen duen. Nik lotsa galdu banuen izan zen bi lankide haien ispiluan ikusten nuelako harro sentitzen zirela nirekin, euskaraz hitz egiten saiatzen ari nintzelako” (Ane Miren)

Pazientzian oinarritutako jokaera asko ere ikusten ditugu, non euskaldunak denbora ematen dion euskaldun-gaiari euskaraz hitz egiteko, haren erritmo mantsoagoa onartuz eta hari estutasuna eragin gabe.

“Eta gero beste gauza bat: bera ez zen urduri egoten nirekin. Beste pertsonekin bai, nabaritzen zen urduri zeudela, adibidez niri hitzen bat ateratzen ez zitzaidanean. Baina Gorriekin ez nuen sentsazio hori. Bera lasai egoten zen, como... “bale, ulertzen dizut”” (Isabel)

Askok ez dute akatsik zuzentzen, sinisturik zuzentasuna berez etorriko dela pixkanaka-pixkanaka, entzutearen eta hitz egitearen poderioz. Askok nahiago izaten du euskaldun-gaiak berak inizatiba har dezan edo galde dezan hau edo bestea nola esaten den, ea ondo esan duen, eta antzekoak.

“Eta gero zuzentzeko, beste pertsona batzuek agian esaten dizute: “gaizki esan duzu”, baina Gorrik ez. Zuzendu bai, baina nire hitzak errepikatuz baina ondo” (Isabel)

Bestalde, ikusten ditugu euskaldunak, euren hizketa-moldea moldatzen eta egokitzen ulergarriago izan dadin. Eta, hala ere, solaskideak ongi ulertzen ez duenean beste modu batzuk bilatzen dituzte gauza bera adierazteko.

“Haiek bertako hizkera (euskalkia) erabiltzen dute, baina agian nirekin apurtxo bat jotzen dute batueraren aldera” (Ane Miren)

“Zerbait ulertzen ez duenean bera lehenengo saiatzen zen beste modu batez esaten baina euskaraz. Hitz edo termino jakin bat baldin bazen esaten zuen gaztelaniaz, baina esaldia ez banuen ongi ulertzen beste modu batean esaten zuen” (Esther)

Eta zertan dabil euskaldun-gaia komunikazio arazoak agertzen zaizkionean? Nola jokatzeko du hizkuntza dela eta duen erronkaren aurrean? Batetik, ikusten ditugu lotsari eta beldurrari aurre eginez. Ausardia biltze horretan funtsezkoa suertatzen zaie solaskideek sortzen duten konfiantzazko giroa. Beraiek ere jabetzera iristen dira akatsak egitea eta zailtasunak izatea normala dela halako ikas-prozesu batean. Hori onartzeak lasaitu egiten ditu.

Bestetik, ikusten ditugu ulermenari lotutako estrategiak erabiltzen. Besteak beste, erne egotea, belarria jartzea; finean, jasotzeko jarrera aktiboa izatea. Halaxe jokatu izan dute gure kasu guztietako lagunek euskarazko harreman errealarari eusterakoan. Entzuteko jarrera aktiboaren osagai nagusiak: arreta, irudimena eta jakin-mina. Jarrera-jokaera hau argi eta garbi ikusi ahal izan dugu gure azterketako pertsona gehienengan.

Azkenik, mintzamenari lotutako estrategiak aipatu behar dira. Euskaldun-gaiek euskaraz mintzatzeari lotzean funtsean hiru estrategia darabiltzatela ikusi izan dugu. Garrantziaren araberako mailaz mailako ordena batean emango bagenitu, honela sailka genitzake: 1) orokorrean, dakitenarekin moldatzen dira: *“Dakizuna erabiltzea modu simple batez esateko, eta gero pixkanaka esaldi konplexuagoak ikasten dituzun heinean, ba, erabiltzen dituzu” (Esther)* ; 2) modu zuzenik eskura ez dutenean, beste modu batez adierazteko moduak bilatzen dituzte: *“(Nik hitz egiterakoan zerbait ezin badut esan egiten dudan lehen gauza da) lasaitzea, eta pentsatzea beste manera bat esateko” (Jabier)*; 3) eta aurrekoaren bidez ere ezin aurrera eginez jarraituz gero, erdarara jotzen dute.

Atal honetan agerturiko gai gehienak galdetegira eraman genituen elkarrizketak egin eta gero, eta haiei helarazi genizkien euren iritziak egiaztatzeko asmoz. Prozesuan haiek laguntzaile izan dituztenen jokaerez eta haiekiko harremanaren nolakoaz galdetuta honako erantzun hauek jaso genituen atzera.

LAGUNTZAILEAREN ZIRRARAZKO JOKAERA

2.12.- Berak pazientzia zuen nirekin

2.13.- Berak baloratzen zuen nire ahalegina

2.14.- Berak animatzen ninduen

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.12	2	1	1	2	1	1	1	
2.13	1	1	1	1	1	1	1	
2.14	1	1	1	1	1	2	1	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Adostasun handia dago honako hiru hauek izan badirela laguntzaileek erakutsitako ezaugarriak pertsonen arteko harremana aintzat hartuz gero: pazientzia, ahalegina baloratzeko joera eta adore emateko prestutasuna.*

HIZKUNTZA INPUTAREN ERREGULAZIOA

2.15.- Berak ahalegina egiten zuen hizkera ulergarria egiteko

2.16.- Berak zuzentzen zizkidan akatsak

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.15	2	1	2	1	2	1	2	
2.16	2	1	3	4	1	3	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Hizkuntza gaitasunik handieneko kidea saiatu egin da kasu guztietan hizkera ulergarriagoa egiten, komunikazioa errazte aldera.*
- 2) *Hizkuntza akatsak zuzentzeko joera ez da beti ikusten. Hala ere, Luisen kasuan joera hau agertu ez izana ez da harrizkoa. Izan ere, berak aztertutako kasuan lankideak ez zuen berak baino hizkuntza gaitasun handiagoa, biak baitziren euskara ikasle. Halakoetan, harrigarria izango litzateke hizkuntza akatsak zuzentzeko jokabidea agertzea. Oierren kasuan ere ez da harrizkoa halako jokaera ez ikustea, berea euskaldunen arteko harremana izan baita, eta hortaz, ez zegoen hizkuntza gaitasunari dagokionez, jauzi nabarmen-nabarmena kideen artean.*

KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

2.17.- Ni saiatzen nintzen euskaraz egiten nekienarekin, eta modu batez ezin banuen esan beste modu batez esango nuen

2.18.- Zerbait esaten ez nekienean galdetu egiten nuen nola esaten zen

2.19.- Joera nuen neure barruan itzulpena egiteko (erdaraz bezala euskaraz egiten saiatzea)

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.17	1	1	2	3	1	1	1	
2.18	1	1	2	4	1	3	2	
2.19	2	2	2	3	2	2	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Hizkuntza zailtasunen aurrean bi estrategia nagusi erabili dituzte kide guztiek: galdetzea eta moldatzea norberak dakienarekin. Modu batez ezin azalduz ibiliz gero, beste modu batez esateko bidea bilatuko zuten. Aurrekoetan bezala, Luisen kasua dugu salbuespena. Kasuaren berezitasunaren argitan azertu beharra dugu hori ezinbestean. Izan ere, Luisek bezala Jaime haren lankideak ere hizkuntza maila antzerakoa zuen. Pentsatzekoa da testuinguru horretan galdetzeko joera gutxiagotan erabiltzea normala dela. Oierren kasua ere berezia da, behin eta berriro aipatu dugunez, zeren berak, hizkuntza jokaera aldatzeari lotu zitzaioala, ez baitzuen apenas zailtasunik euskaraz egiteko.*
- 2) *Badago erabateko adostasuna ere barruko itzulpenaz. Denak zebiltzan, beti ez bazen ere maiz, hizkuntza batetik besterako loturak egiten. Hala ere, badirudi itzulpen mekanismoa zertxobait*

gutxiago erabiltzen zutela egokitzeko mekanismoa baino (zekitenarekin era estrategikoan moldatzea). Oierren salbuespena ulergarria da oso, berak euskaraz normaltasunez hitz egiteko gaitasuna baitzuen prozesuaren hasieratik bertatik.

NORBERE ALDARTEA

2.20.- Harekin hitz egiterakoan seguru sentitzen nintzen nahiz eta akatsak egin

2.21.- Harekin hitz egiterakoan euskaraz komunikatzeko gauza nintzela sentitzen nintzen

2.22.- Harekin hitz egiterakoan ahalegin handia egin behar izaten nuen

2.23.- Ahalegin hori eramangarria zen

2.29.- Prozesuan zehar momentu txar asko pasa izan ditut

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.20	2	1	1	2	1	2	1	
2.21	1	1	2	1	1	1	2	
2.22	2	2	-	3	2	1	2	
2.23	1	1	1	1	1	1	2	
2.29	3	3	3	4	1	3	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Prozesuan irauteko eta aurrera egiteko ahalegin handiak egin behar izan dituzte gehien-gehienek, baina hori guztia oso modu eramangarrian egin dute.* Denetan Oier izan da ahalegin gutxi egin behar izan duena hizkuntza jokaera aldatzeko, berak hasieratik bertatik euskaraz egiteko gaitasun egokia zuenez gero. Estherrek ez ezik, gainerakoek ez dute aipatzen momentu txar asko pasa dituztenik. Estherren kasuan ondo asko uler daiteke zergatik pasatu dituen berak, besteek ez bezala, momentu txar asko. Aintzat hartu beharko genuke berak lanean bezero bezala, esate baterako, Euskaltzaindia eta euskalgintzako hainbat eta hainbat erakunde izan dituela. Horrek, seguruenera, nabarmen goratuko zion hizkuntza-arduraren langa. Hala ere, zailtasunak zailtasun, Estherrek berak eramangarritzat bizi izan du prozesua.
- 2) *Denak seguru sentitu dira akatsak egiteko, epaituak eta larrutuak izan gabe. Era berean, euskaraz komunikatzeko gauza sentitu dira prozesuan zehar.* Agian, bi ezaugarri horiek elikatu dute pertsona hauen kemena prozesua eramangarri izan zedin.

HARREMANEAN IZANIKO ERAGINA

2.27.- Euskaraz egiteagatik gure harreman pertsonala makaldu zen

2.28.- Euskaraz egiteagatik gure lan harremana kaltetu zen

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.27	3	4	4	4	4	2	4	
2.28	3	4	4	4	3	3	4	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Garbi adierazten dute hizkuntza ohitze prozesuak ez dituela lan-harremanak nabarmen kaltetu, ez eta harreman pertsonalak ere.* Hainbat kasutan nolabaiteko kaltea sumatu dute, baina antza denez ez gehiegi ere, ez alarma gorriak pizteko moduan behinik behin.

HIZKUNTZA-GORABEHERAK

2.30.- Gorabeherak izan genituen gure hizkuntza harremanean (garai batez euskaraz egiteari utzi eta gaztelaniara itzuli, edota alderantziz)

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.30	3	4	4	4	4	4	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Hemen ia aho batez adierazten dute hizkuntza ohitze prozesuak ez duela gorabeherarik ezagutu: hau da, behin euskara hizkuntza-arautzat hartuz gero, ez dutela hori aldatu.*

EGOKITZEKO ALDIA

2.31.- Hasi eta berehala sentitu nintzen eroso euskaraz hitz egiten harekin

2.32.- Hilabete batzuk behar izan nituen harekin euskaraz hitz egiten eroso sentitu arte

2.33.- Urtebete edo gehiago behar izan nuen harekin euskaraz hitz egiten eroso sentitu arte

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.31	1	2	1	3	3	2	2	
2.32	3	1	3	2	3	2	1	
2.33	3	1	3	4	1	1	4	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) Erantzunetan ez da joera garbi bat ikusten. Oso nabarrak dira erantzunak. Denetan, harrigarriena Jabierren erantzuna da, bere hizkuntza gaitasuna oso murrizta izanik, lehenengo unetik eroso sentitzea ez baitzaigu batere ohikoa iruditzen. Hori kenduta, esan genezake batzuek hilabete batzuen bueltan, eta beste batzuek urtebete inguruan lortu dutela lankide bidelagunarekin euskaraz eroso-eroso sentitzea.

4.6.- Euskaltegiaren egitekoa

Herri-erakundeetako langileek, oro har, harreman handia izan dute euskaltegiarekin. Seguru asko, lanpostuak direla eta, hizkuntza eskakizunak betetzeko azterketa egin behar eta agiria eskuratu beharrak eragina izango zuen hizkuntza modu sistematikoan ikasteari ere eman zitezten. Esther da horretan salbuespena, euskalduntze prozesua euskaltegira joan gabe lanpostuan bertan lankideekin euskaraz eginez burutu duenez gero.

Enpresa pribatuetako langileek ere jaso dituzte euskarazko eskolak, batzuetan lantokian bertan, beste batzuetan euskaltegiaren batean. Baina, herri-erakundeetako langileekin alderatuta, ordu eta urte gutxiago eman dituzte eskola inguruetan.

Kontuak kontu, lantokia bera izan da gehienentzat "euskaltegi" nagusia, eta bada inor barnetegi batekin alderatu duena ere.

Funtzio ezberdinak bete izan ditu euskaltegiak hauen prozesuan, eta beti ez da berdina izan kide guztientzat. Kasuen azterketa, hortaz, kasuistika bihurtuko litzaiguke puntu honetan, ez baitira joera nagusi argiak ikusten. Hona, orduan, zerrenda gisa, batzuek eta besteek euskaltegiari aurkitu dizkioten onurak:

- Gramatika lantzeko, hizkuntzaren ikasketa sistematikoa egiteko balio izan die batzuei.
- Euskara praktikatzeko aukera eman die batzuei.
- Irakurtzeko eta idazteko, idatzizko erregistroa lantzeko aukera eman die batzuei.
- Lantokitik aparteko gaiak jorratzeko eta hiztegia zabaltzeko aukera eman die batzuei.
- Zalantzak argitzeko aukera eman die batzuei.
- Lotsa kentzeko balio izan die batzuei.
- Tutoretza pertsonalizatua jasotzeko aukera eman die batzuei.

Hala ere, puntu honi egitura pixka bat gehiago emate aldera, esango genuke hiru tipologia sumatu ditugula langile hauen ikas-prozesua aintzat hartuta.

Lehenengo ibilbidean kokatuko genituzke hizkuntzaren ikasketa sistematikoan murgilduta ordu asko eta asko eman ondoren, momenturen batean, erabilera errealerako jauzia emateko, edo hartara prestatzeko, “desikaste” prozesu bati ekin behar izan diotenak. Desikaste prozesu horren helburuak honako hauek izango lirarteke: ezagutzaren gehiegizko zama arintzea, diskurtsoa erraztea eta jatorritza, edo itzulpen mekanismoaren gehiegizko lana ahultzea. Operazio hauek guztiak beharrezkoak izango lirarteke, antza, ikaslea harreman errealetan ausartzeko, arintasuna eta jariotasuna irabazteko, eta berezotasunari aukera emateko.

Bigarren ibilbidean ikusten ditugu “estilo naturalean” dihardutenak. Hauek harreman errealetan murgilduz ikasi dute, hizkuntza zeregin erreletarako erabiliz eta hitzuneekin eguneroko harreman bizietan. Prozesuan zehar agertu diren zalantzak eta abar, hiztegieta eta bestelako baliabide publikoetan kontsultatuz, edo zuzenean hitzunei galdetuz gainditu dituzte. Behin euskaldunduz gero, tarte hartu dute hizkuntza gramatikaren ikuspegitik aztertzeko, kasu askotan agiri formalak eskuratzeko nahiagatik edo beharagatik. Hauen prozesua erabileratik erabilera eman da zuzen-zuzenean.

Hirugarren ibilbidean aurreko bien arteko nahasketa bat ikusten dugu. Bi prozesuak –harreman errealak eta ikasketa sistematikoa- pare-parean doaz, elkar osatuz une orotan.

Hizkuntzaren ikasketa sistematikoa dela eta, ohar pare bat utzi nahi genituzke gogoetarako:

- 1) Garbi ageri da ikasle batzuentzat hizkuntzaren ikasketa sistematikoa ziurtasunaren eragile dela. Hortaz, badu egiteko emozionala pertsona batzuentzat.
- 2) Garbi ageri da ikasle batzuek hizkuntzaren ikasketa sistematikoari esker aurrerapenak egiten dituztela euren hizkuntza jardunean, monitoreak egoki eta trebeki erabiltzearen ondorioz.
- 3) Garbi ageri da hizkuntzaren ikasketa sistematikoa puntu bateraino lagungarria izan daitekeen bezala, nolabaiteko puntu batetik aurrera blokeatzailea ere izan daitekeela.

4) Garbi ageri da ikasle batzuek aurrera egiten dutela hizkuntzaren gaitasunean hizkuntzaren ikasketa sistematikorik gabe edo ia gabe, hizkuntza harreman errealetan jardutearen ondorioz.

Azpimarratzekoa da gure azterketako pertsona gehienek heldutasun pedagogiko handiko ikasleak izan direla: hau da, ikas-prozesuaren ardura beren gainean hartu dutenak. Ikasle arduratsu, autonomo eta estrategikoak, hain zuzen ere. Gure azterketako protagonisten irakasleei (tutoreei, laguntzaileei...) hitza emango diegu oraingoan, puntu hau ilustratzeko.

"...ikas-prozesuaren ardura berea da. Berak badaki hor daudela baliabide batzuk, eta horietaz baliatzen da, baina horiek ez dira ardatza, ardatza bera da.(...) Berak ongi daki bakarrik ikasten. Ikastea jarduera aktiboa da. (...) Ikasle ona da. Berak ondo daki nola ikasten den eta zer egin behar den ikasteko" (Maribi Elustondo, Ane Mireren tutorea)

"Ikasteko modu naturala hartu du, ez da izan sistematikoa. Hori ikusten da ariketa egiten ditugunean, berak oso ongi daki zer komeni zaion eta zer ez. Esango du: "ondo, Joxe, ariketa hau komenigarria da, baina ez dago nire lehentasunetan". Berak egiten du selekzio bat" (Joxe Elustondo, Julenen irakaslea)

Euskaltegi inguruek ez dute soilik arrazoizko *ikaskuntza* elikatu (gramatika ezagutu, arau batzuk landu, ezagutza batzuk buruz ikasi...). Haiek ere *jabekuntzarako* eremuak izan dira (irakasle-ikasleen arteko euskarazko komunikazioa, ikasleen arteko euskarazko komunikazio erreala eskola barruan baina tarteka eskolatik kanpo ere, irakurgai eta entzungai errealean erabilera...).

Benetako jauzia, ordea, *jabekuntza* prozesua zuzenean gizarte harreman "errealetan" ematen hasi denean etorri da, lantokiko euskaldunen batekin bikote harreman sendoa uztartzean hain zuzen ere.

Aurreko ataletan egin bezala, atal honetan ere galdetegiaren bidez jaso genituen erantzunak aurkeztuko ditugu datozen lerroetan. Orain artean emaniko datu kualitatiboak osatzeko balioko dutelakoan gaude. Hona hemen emaitzak:

EUSKALTOKIA

3.3.- Lantokia bera izan da niretzat euskaltegi nagusia

3.4.- Euskaltegiari esker lortu dut nik bereziki euskaraz egiteko orain dudan gaitasuna

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
3.3	2	1	3	-	1	1	2	
3.4	2	2	2	-	4	2	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Gehienek lantokia bera izan dute euskaltoki nagusia. Hizkuntza gaitasunean emaniko aurrerapauso nabarmenenak bertan eman dituzte.* Irene da salbuespen bakarra, baina ez da harriztekoa bere kasuaren xehetasunak aintzat hartuz gero. Bere euskalduntze prozesu nagusia kalean bertan egin zuen herriko jendearekin kaleko harremanetan. Lantokira iritsi zenean harrezkero gaitasun handia zuen euskaraz hitz egiteko. Hortaz, bere kasuan lantokia ez da euskaltoki nagusia izan. Oierrek ez ditu galdera hauek erantzun, berak haurtzaro-gaztaroan

egin baitzuen euskalduntze prozesua derrigorrezko eskolaldian. Hortaz, ez euskaltegian ez lantokian egin du berak euskalduntze prozesurik.

- 2) *Euskaltegiak ere eragin handia izan du hizkuntza gaitasuna eskuratzeko garaian, baina beti ere lantokiak izan duen eraginaren atzean kokatu behar dugu.* Estherren kasuan euskaltegiak ez du batere eraginik izan, euskalduntze prozesu gehien-gehiena lantokian bertan egin duelako erabileraren erabileraz. Ireneren kasuan, euskalduntze prozesu gehiena kalean egin du, eta euskaltegiaren eragina prozesuaren bukaera aldean etorri da gehienbat, honezkero zuen gaitasun handia ezagutza sistematikoaren bidez osatzeko asmoz.

EUSKALTEGIA

3.5.- Euskaltegiak balio izan dit zalantzak argitzeko

3.6.- Euskaltegiak balio izan dit ziurtasuna lortzeko

3.7.- Euskaltegiak balio izan dit gauza berriak ikasteko

3.8.- Euskaltegiak balio izan dit praktikatzeko

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
3.5	1	1	2	-	4	2	1	
3.6	1	1	2	-	4	2	2	
3.7	1	1	2	-	4	2	2	
3.8	1	1	2	-	4	3	3	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) *Euskaltegietan eginiko saioak baliagarriak suertatu zaizkie gehien-gehienei, honako lau alderdi hauetan bederen: zalantzak argitzeko, ziurtasuna lortzeko, gauza berriak ikasteko eta praktikatzeko.* Esther dugu salbuespena, aurreko batean esan bezala berak ez baitu euskaltegian burutu euskalduntze-prozesua. Eta Oierrek ere ez du euskara ikasi inongo euskaltegitan, derrigorrezko eskolaldian baizik.

4.7.- Aldagai pertsonalak: larritasun eramangarria

Marko teorikoan genioen arabera, nekez jabe daiteke hizkuntzaz emozionalki larri eta estu dabilena. Hortaz, jakitea zein bizitasun emozionalez bizi izan dituzten egoera zailak garrantzia du.

Egoera zail askoren berri eman digute protagonistek: tailerreko nagusiarekin euskaraz hitz egin beharra, bezeroarekin harremanetan jarri behar eta bezero hori Euskaltzaindia izan, edo eginkizun batera joan eta bertan dauden herritar guztiek euskara hutsez egiten duten euskaldun peto-petoak izan. Jende askok egoera berean egonik atzera egingo zuen. Gure azterketako protagonistek, ordea, halako egoerak aurrez aurre izan dituzten arren haien latzak ez ditu kikildu, eta aurrera egin dute. Larritasuna esperimantatuta ere hondoratu barik eramangarritzat jo dituzte egoera horiek guztiak.

Aurrera egiteko dinamika honetan badira bi polo elkar osatzen dutenak. Batetik, larritasun, presio edo "adrenalina" puntu bat behar-beharrezkoa dela ematen du. Hau normalean kanpotik datorren zerbait da. Eta bestetik, badago alderdi pertsonal bat, barrutik sortzen dena eta kanpoko egoera desiragarri, egingarri eta eramangarritzat jotzera eramaten duena.

Alderdi pertsonalari dagokionez, honako barne-indar hauek sumatu ditugu gure protagonistengan, prozesuaren ahaleginari eusten nola edo hala lagundu dietenak.

Euskaraz jardutearen ahalegina jarduera “desiragarri” egiten zituztenen artean honako faktore hauek bereziko genituzke:

- Zirrarak oroitzapen atseginak
- Barneko zorrak kitatzeko beharra
- Norberaren talde identitatea euskarari lotuta
- Inguruarekiko sentiberatasuna
- Pragmatismoa
- Jakin-mina

Jarduera hori euren eskura zegoela, eta hortaz, ekintza “egingarria” zela, hautematera eraman dituzten alderdien artean honako hauek azpimarratuko genituzke:

- Norbere gaitasunaren gaineko uste ona
- Ikas-prozesuaz arduratzeko heldutasun pedagogikoa
- Komunikazio estrategiak erabiltzeko trebetasuna
- Akatsekiko jarrera natural eta orekatua
- Inplikatzeko gaitasuna
- Beste hizkuntza batzuen jabekuntzan izaniko esperientzia

Beste hainbat faktorek ere eragin du beraiek indartsu eta kementsu sentitzea euskararen erabilerari heltzeko, zailtasunak zailtasun. Hauek aipatuko genituzke, besteak beste.

- Kiroltasunaren izpiritua
- Egoera zailen aurrean egoten jakitea atzera egin gabe
- Zailtasunak zailtasun, aurrera egiteko erabakitasuna eta kemena
- Kinka larrietan, urduri ez jartzea

4.8.- Hizkuntza jokaera berriaren hedapena

Kasu gehien-gehienetan -Oierrena izango litzateke salbuespen bakarra- harreman zehatz batetik (edo pare batetik) abiatu da hizkuntza jokaeraren aldaketa. Euskaldun-gai bakoitzak hurbileko euskaldun batekin (edo pare batekin) izan duen harreman pribilegiatuaz ari gara hemen zehatz-mehatz. Ingurune mugatu horretan gizarte eta giza baldintza egokiak sortu dituzte protagonistek hizkuntza jokaera berria gauzatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, ez da harreman zehatz horretara mugatzen hizkuntza jokaeraren aldaketa prozesua. Hura abiapuntua bazen ere, gerora bestelako lan inguruetan ere nabaritu zen faktore berriak ekarritako eragina. Uhinak hedatzen dituen lurrikara baten epizentroa gisa ulertu beharko genuke harreman zehatz horrek sortutakoa. Bikote bakoitzak abiatu zuen ildo berriak, orduan, gutxi-

asko ekarri zuen inguruan ere hizkuntza jokaerak moldatu edo egokitu beharra. Moduak ezberdinak izan dira:

1) Batzuetan, bikoteko euskaldunak berak bere gain hartu izan du ardura euskaldun-gaiak beste euskaldunekin zituen harremanak euskaraz izan zitezten

“Batzuetan kanpotik etorri da inizatiba. Adibidez, Jaime: ikusten bazuen euskaldun zahar bat nirekin erdaraz, esan egiten zion niri euskaraz egiteko, nik euskaraz moldatzeko gauza nintzelako, eta handik aurrera euskaraz”. (Julen)

“Gainera, Nerea beti zebilen erne, eta lankideei esaten zien niri euskaraz egiteko, erdaraz sumatzen bazituen”. (Isabel)

2) Batzuetan, euskaldun-gaiak berak hartu izan du inizatiba inguruko harremanak, ahal zen neurrian, euskararen arrastoan jartzeko.

“Beste euskaldunekiko hizkuntz aldaketa, hau ja izan da modu naturalean. Behin zerbitzu-buru bezala euskara zela-eta hartutako erabakia hartu ondoren, banekien euskaldunekin logikoa zela euskaraz hitz egitea, baina hori pixkanaka-pixkanaka etorri da, ez da izan bapatekoa Danielekin bezala”. (Luis Alberto)

“Hala ere, horko batzuekin lortu dut hizkuntz harremana aldatzea. Eta prozesua alderantzizkoa izan da, nik izan dudalako jarrera beti elkarriketa lehenengo momentutik euskaraz egiteko, adibidez galderak egitean euskaraz, eta ja jarraitzen dugu euskaraz”. (Esther)

3) Batzuetan, inguruko lankide euskaldunek beraiek moldatu dute euren kabuz hizkuntza jokaera.

“Gero beranduago, nola jada jendeak ikusten gintuen Gorri eta biok euskaraz egiten, denborarekin beraiek ere hasi zitzaizkidan euskaraz egiten”. (Isabel)

Nabarmentzekoa da prozesu honek nola normaldu duen gure protagonisten hizkuntza jokaera lankide euskaldun berriekin. Kasu gehienetan lehenengo unetik bertatik eraiki dituzte elkarrekiko euskarazko harremanak erraztasun eta naturaltasun handiz.

“Beste batzuetan, adibidez, lankide berrien kasuan, haiek etorri dira eta ikusi naute euskaraz hitz egiten batekin edo besteekin. Eta haiek euskaldunak badira orduan niri ere euskaraz egiten didate. Ezagututakoan lehen hitza euskaraz bada ja ohitura sortzen da”. (Julen)

“Nik jada euskara nire lan-hizkuntza kontsideratzen dut... horregatik lantokira norbait berria etortzean edo bileretan lehenengo hitza beti euskaraz egiten dut”. (Esther)

Lanean hasitako mugimendua lantokitik kanpora ere eraman dute aztertutako gehienek, baina Oierren kasuan ez ezik, non izugarrizko hizkuntza aldaketa egin duen lagunarteko giroan, gainerakoen kasuan txikixeagoa izan da euskarak izan duen zabalpena lan eremuan egin dutenarekin alderatuta.

“Oso harro nago orain lantokian euskaraz egiteaz, eta pixkanaka beste esparru batzuetara zabaltzen ari naiz jokaera. Herriko elkarte bateko kideekin (Saharako herriaren aldeko elkarte) adibidez euskaraz dut harreman”. (Isabel)

“Euskara plana eta tailer hauetatik atera dudan filosofia-edo kalera baita atera dut, hori agian hemen lantokian pixkanaka joan naizenez euskaraz hitz egiten ez da nabaria izan, baina kalean eta koadrilakoekin izan da radical, egon naiz 28 edo 29 urte erdaraz egiten beraiekin, eta gaur da eguna non euskaraz egiten dudan batzuekin. Haiekin inizatiba nik hartu dut bai”. (Oier)

Euskarazko jokaeraren hedapenez galdetu genien aztertutakoei galdetegiaren bidez ere, eta honako emaitza hauek jaso genituen:

LANKIDEENGAN IZANIKO ERAGINA

2.34.- Guk euskaraz egiteak harridura sortu zuen inguruko lankideengan

2.35.- Harrezkero inguruko lankide batzuk hasi zitzaizkidan euskaraz egiten

2.36.- Harrezkero neroni hasi nintzen euskaraz inguruko beste lankide batzuekin

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
2.34	2	2	3	2	4	1	2	
2.35	3	1	1	2	3	2	1	
2.36	3	1	2	2	2	2	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) Oro har hitz eginda, ikusten dugu *euskarazko harreman horrek eragin zuela inguruko lan eremuan, harridura sortuz*. Baina eragin horren bizitasuna aldatzen da kasutik kasura. Agian, interpretazio gisa, esan genezake Ireneren kasuan harridura txikia izan zela, egokitze aldia laburra izan zelako, berak zegoeneko euskaraz aritzeko gaitasun arrunt samarra baitzuen. Estherren kasuan, ordea, bere jokaerak ez zuen harridura berezirik sortu, hori baitzen, seguruenera, testuinguru horretan harengandik espero zena. Gainerako kasuetan, harreman horren inpaktua argi eta garbi ikusten da.
- 2) Ikusten da, era berean, *horri txirikordatuta etorri zela ondoren hizkuntza-jokaera batzuk aldatzea*. Gure protagonistek beraiek inizatiba hartu zuten beste lankide batzuekin ere euskaraz egiteko. Era berean, zenbait lankidek ere heldu zion lehenengoz haiekin euskaraz egiteari. Jabierrena da salbuespen nagusia.

ERABILERAREN HEDATZEA

3.1.- Orain, lantokian norbaitekin euskaraz egin badezaket egiten dut

3.2.- Orain, kalean (lagunekin, senitartekoekin...) norbaitekin euskaraz egin badezaket egiten dut

	Jabier	Julen	Irene	Oier	Esther	Luis	Ane M.	Isabel
3.1	2	2	1	2	1	1	2	
3.2	2	3	1	2	2	3	2	

Datuen irakurketatik honako hauek ondoriozta daitezke:

- 1) Datu hauen argitan, badirudi, *euskaraz egiteko ohitura berria finkatu duenak, lantokian bertan inorekin euskaraz egiteko baldintza egokiak sumatuz gero euskaraz egiteko joera izaten duela*. Joera bera lantokitik kanpora ere zabaltzen dela antzematen dugu, baina ez lantokian bezain indartsu.

4.9.- Lanari lotutako aldagaiak

Azterketa honetako puntu nagusia bikoteetan oinarritu da. Bestela esanda: bi kideren arteko gertu-gertuko harremanean. Testuinguru intimoa esan geniezaioke horri. Haren inguruan, baina, badira bestelako testuinguruak, aurrekoak baino zabalagoak, eta aurrekoekin elkarreraginean ere. Aipa daitezke, esaterako, lantokiko sailean edo tailerrean dagoen hizkuntza-egoera, edo lantoki osoan dagoen hizkuntza-egoera. Ikus dezagun, zein informazio jakingarri jaso dugun gure protagonisten testigantzetatik gainerako testuinguru horietaz.

Hierarkia harremanak

Bost kasutan maila bereko lankideen artean eman da hizkuntzaren aldaketa. Besteetan, bazegoen lan-hierarkia tarteko: bi kasutan arduraduna zen euskaldun-gaia, eta kasu batean euskalduna zen arduraduna.

Hizkuntza ohitze prozesuaren ikuspegitik ez dugu alde kualitatiborik ikusi hiru harreman mota horien artean. Hierarkia tarteko egon arren, guztietan konfiantza giroa nagusi izan dela baieztatu digute lekuko guztiek. Harremanak gertu-gertukoak izan direla ematen du. Hizkuntza aldaketaren prozesua ziurtasun eta konfiantza giroan ematen denean aurrera bizkor egiteko baldintzak dituela adierazten digute kasu guztiek. Giro horretan, arduradunak, euskaldun-gaiaren tokian dagoenean, ez du hainbesteko beldurrik izaten bere estatus sozialetik beherago agertzeko, ez “ahulago”, “mugatuago” edo “ikaslearen parean” agertzeko.

“Nik badakit erdaraz egingo banu hobeto egingo nuela, eta euskaraz egiteagatik zerbait galtzen dudala, baina nola jada jendeak badakien, eta nola jendeak estimatzen duen ni egiten ari naizen esfortzua, ba orduan jada ez da traba, agian zailtasun pixka bat, baina niri ez zait inporta” (Luis Alberto)

Arduradunak euskaraz egiteko joera duenean eragin handia izaten du lan inguruan. Hona hemen testigantza batzuk:

“Inazioren eta Aritzen etorrera oso garrantzitsua izan da euskararentzat, zeren zuzendari industrialak, gerentea eta giza kudeaketaren zuzendaria euskaldunak baldin badira, erlazioa beraien artean eta

beraien familian euskaraz baldin bada eta hemen ahal badute euskaraz egiten badute, ostias!, argi! Claro, hauek hierarkian duten kokapenak asko eragiten du euskara normalizatzeko” (Oier)

“Niretzat, berriz, sentsazio berria zen, eta igual beldurra ere bai, aldaketa hori oso handia zelako. Baina polita ere izan zen. Imaginatu, lantokira zoazela eta jefiak euskaraz hitz egiten dizula, zuk aldatu behar duzu txipa. Hasieran igual beldurra pixka bat, baina handik aurrera ez, Jaimekin konfidantza handia dudalako”. (Julen)

Lantegiaren tamaina

Guk, hizkuntza aldaketaren prozesua, testuinguru txiki, finkatu eta murriztuetan ikusi izan dugu beti, nahiz eta lantegia handi, tarteko edo txikia izan. Erakunde handietan, langileak sailetan eta talde txikiagotan antolatzen dira. Lan eginkizun zehatzen inguruan egituratzen dira eguneroko harremanak, eta hori normalean talde txikitik gertatu ohi da. Hurbileko harremanak sortzen dira talde txikitik, kutsu pertsonala hartzen dute sarri, konfiantza sortzen da erraz, maiz ematen dira elkarrizketak. Horrenbestez, baldintza egokiak ematen dira talde txikitik hizkuntza-ohiturak astindu eta iraultzeko, nahi izatera.

Hala ere, aurreko baieztapenak bi nabardura behar ditu.

Batetik, Oierren eta beste kasuen artean ikusi izan dugun aldea aipatu behar da. Oierren kasuan hizkuntza jokaeraren aldaketa ez da eman hurbileko lan harreman sarean, euskaldunen arteko sare berezietan baizik. Izan ere, Oierren kasuari gagozkiolarik, lantokiko euskara planak berekin ekarri zuen euskaldunak biltzea hainbat eta hainbat taldeen inguruan. Bertan elkarturiko lankide euskaldunek hizkuntza harreman berria eraiki zuten euren artean. Baziren bertan harreman zaharrak, baina gehienak berriak izan ziren. Pentsatzekoa da, orduan, halako hizkuntza gaitasun handia duten pertsonak ez luketela denbora asko elkarrekin pasa behar hizkuntza jokaera berria eraikitzeko, beste kasuetan gertatu bezala hain zuzen ere (non kideetako bat euskara ikasten zebilen euskara erabiltzearekin batera)

Bestetik, antzematen da gertuko harremanak “gertuegikoak” izanez gero, hizkuntza jokaeraren aldaketan eragiteko bestelako faktoreak gehitzen direla. Izan ere, halako harreman batek gertutasun afektibo handiago ekar dezake lan-harreman huts batek baino. Lan mailako gertutasuna eta gertutasun pertsonala, gertutasunak izanik biak, ez dira beti izaera berekoak. Isabelen eta Oierren kasuak aipatu ditzakegu, hurrenez hurren. Biek ala biek lortu dute gertuko lankideekin hizkuntza jokaera aldatzea, baina, aldi berean, oso-oso gertuko beste lankide-lagunekin ez dute prozesu bera burutzea erdietsi.

“Juanxo da lantokian nire lagunik handiena. Orain harreman handia daukagu baina lehen ez geneukan. Ni lantokian sartu baino lehen ez nuen ezagutzen eta hemen egin dugu harremana eta egun lagunak gara, o sea lankideak eta lagunak (...) Eta zer gertatu zaigu?. Nik badakit euskaraz dakiela,

berak badaki nik euskaraz dakidala, baina gure erlazioa beti izan da erdaraz, lanean hasi zen erlazioa eta lagunak egin ginen (...) Orduan, Juantxorekin apurtu behar dut hori, baina ez da erraza izango, nire lagunik zailena izango da ziur". (Oier)

"Oso gutxi falta zaio Isabeli. Alkatearekin-eta bilerak euskaraz egiten ditu. Langile gehienekin ere bai. Baina badaude oraindik euskaldun errekalzitrante batzuk euskaraz egiten ez diotenak, eta horiek dira bere inguruan daudenak hain zuzen ere". (Isabelen kasua. Nerea Casadori egindako elkarrizketa osagarria)

Nabardurak nabardura, gure protagonistek euren gertuko ingurunetan zeukaten kideren batekin egin dute erabilerarako lehen jauzia, urratsik erabakigarriena. Ez dirudi lantokiaren tamainak horretan asko eragin duenik .

Erakunde mailako hizkuntza "politika"

Erakunde mailako hizkuntza-neurriak ikusi izan ditugu lantoki guztietan. Hori bai, tankera eta intentsitate ezberdinetakoak. Lanpostuen perfilak hizkuntzaren aldetik araututa zeuden herri erakundeetan (Esterren kasuan izan ezik), eta horrek euskara ikastera behartu zituen gure protagonistak. Alabaina, ez dugu hain garbi ikusi neurri horiek bultzatu ote dituzten gure protagonistak euskara erabiltzera. Gure protagonistak inguruarekiko sentiberak izan dira, eta era eraikitzailean erantzun zuten kanpotik etorritako presioari. Baina langile ugari ditugu, protagonistek berek aipatuta, neurrien eraginez euskara ikasi bai, baina baita erabilerari bizkarra eman ere.

Enpresa pribatuetan euskara planak ikusi ahal izan ditugu, eta hauek ikastearen derrigortasunaren orde, euskara ikasteko pizgarriak eta erraztasunak eskaintzen zituzten. Ireneren enpresa da honetan salbuespena. Haren enpresak euskara ezagutzea eskatzen baitzien langileei kontratu aurretik ere (enpresa honek zerbitzua euskaraz eskaintzen baitu). Pizgarri hauek, zalantzarik gabe, lagundu dituzte gure protagonistak euskararen ikastera hurbiltzen.

Euskara planek abiatutako ekimenak askotan hartu dituzte ahotan gure protagonistek, eragina izan dutelako erakusgarri.

Oierren kasua, euskara plan batek hizkuntzaren jokoeran izan dezakeen eraginaren eredu gisa aurkez daiteke. Euskara-planaren ezarpenak astindu zuen, ongi astindu, lantokiko hizkuntza egoera. Horren ondorioz, euskaldunak trinkotu, elkartu eta giro berezi horietan haien arteko harremana euskararen bueltan jarri, hori guztia lortu zuen euskara-plan batek euskaldun dentsitate gutxiko eremu batean. *"Euskara planaren ezarpena txip aldaketa sakona izan zen hemen, zeren hor baita konturatu ginen nork zekien euskaraz eta nork ez, orduan ja gure kontuz zegoen beraiekin euskaraz hitz egitea ala ez".* Oier beldur ageri da, hala ere, zer gertatuko litzatekeen euskara-plana bertan behera geldituko balitz. Jabe da halako plan batek babesa ematen diola euskarazko jokoerari, eta ondorioz, hori ezean, euskaltzaleen arteko harremanak besterik ez lukeela iraungo sumatzen du, baina ez da hain ziur zer

gertatuko litzatekeen besteen arteko harremanekin. Beti ere, euskara planaren inguruan, TELP ikastaroak aipatu dizkigu Oierrek, bigarrenik, bizitasun handiz. Berak dioenez, hauek izugarriko garrantzia izan zuten berarengan, batetik, euskararekiko kontzientzia bizkortzeko, eta bestetik, lantokitik kanpora ere koadrilako lagunekin euskaraz jokatzeko hasteko.

Luis Albertoren kasuan, esaterako, Manuel Elustondo erakundeak jarritako hizkuntza trebatzaileak ikaragarriko laguntza eman zion ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko: *“Hau ere niretzat izan da klabea (...) Berak erakutsi zidan garrantzitsuena zela komunikatzea, ez goi mailako euskara erabiltzea, edo akatsik gabeko euskara egitea”*. Hizkuntza trebatzailearen eta lankide euskaldunen laguntzaz lortu zuen berak euskararen erabileran lehen pausu sendoak ematea, eta arian-arian jokaera normalizatuta izatea ere. Gerora, berak, saileko arduradun gisa, bultzatu zuen euskara plan bat bere sailean, eta urteak joan eta urteak etorri ikaragarri zabaldu da euskararen erabilera eremu horretan. Horren sari gisa, Bikain Agiria eskuratu zuten.

Ane Mirenek ere oso argi aipatzen ditu lantokiak euskararen alde hartu dituen egiturazko neurriak. Baina, nabardura garrantzitsu bat erantsita: erakunde neurriez gain jendearen berezko erabilera azpimarratzen du berak. *“Baina hemengo jendeak asko animatzen nau. Hemengo jendea oso espeziala da horretarako. Horrek aukera ematen dizu. Bertakoek euskara bihotzean daramate. Gure ospitalea da Osakidetzako lehen zentroa “Bikain Ziurtagiria” lortu duena, euskara hemen erabiltzen delako, euskara planak eta estrukturak badaude, baina batez ere erabiltzen delako”*.

Isabelek oso garrantzitsutzat jo izan du euskara teknikariaren laguntza etengabea: *“Nerea (euskara teknikaria) niretzat oso garrantzitsua izan da. (...) Niri asko laguntzen zidan momentu txarrak gainditzen. Ni batzuetan joaten nintzaion nire zailtasunak kontatzera, eta berak oso ondo ulertzen ninduen eta aholkuak ematen zizkidan. Bestalde, batzuetan hizkuntzazko zalantzak nituen, eta harengana jotzen nuen haiek argitzeko. Seguridade eta lasaitasun handia ematen zizkidan horrek. Halako pertsona bat aldamenean izatea pribilegio handia da”*. Hizkuntza zalantzak argitzea eta segurtasun emozionala ematea, bi egiteko horiek betetzen zituen Nereak.

Beste protagonista batzuek erakunde mailako laguntzei esker izan zutena, era naturalean aurkitu zuen Estherrek bere lan inguruan. Bere lankide guztiak euskaraz lan egiten zuten, euskara ikasi behar izan zuten ezinbestez, baina prozesu horretan behar izan zituen laguntza guztiak, hizkuntzazkoak zein emozionalak, lankideek, eta Rosa gertuko lankideak bereziki, eman zizkieten. Gauzak horrela, euskararen erabilera normalizatuak berak bete zuen, erakundeetan “euskara planak” egin nahi izaten duena.

Lan mota

Erraz ikus daiteke lan-mota ezberdinek langileen arteko komunikazio-tankeran izan ohi duen eragina. Bilera asko egiten dituzten langileek, konparaziorako, komunikazio truke sarriago izaten dute, itxuraz, tailer batean makina banatan diharduten langileen artean ohi dutena baino. Erritmo bizi-bizian egin beharreko lanek, baita ere, komunikazioa murriz dezakete erritmo patxadagoetan egiten direnen

aldean. Komunikazioa era horretan eraginda, hizkuntzarekin zerikusi duen aldaketa prozesu orok zeharka nozituko du lan antolaketaren eta lan izaeraren marka.

Irenek, esaterako, kontaktzen zuen ordu gutxi ematen zituela lanean, eta ordu horietan harreman gehiena haurrekin zela (zerbitzuaren jasoleekin, alegia), eta horrenbestez, oso gutxi hitz egiten zutela lankideek euren artean. Seguru asko, horregatik, lankide batekin egin zuen hizkuntza aldaketa lanean baino gehiago lanetik kanpo egin zuen, lantokian eskasak baitziren hizkuntza-harremanetarako zeuzkaten orduak.

Zerbitzu enpresak edo herri erakundeak direnean, asko markatzen du zein den bezeroekiko izan beharreko hizkuntza harremanak. Luis Albertok, behin baino gehiagotan aipatu izan zigun euren lanaren zati handi bat zela herrietako alkateekin, zinegotziekin edo bere arloko arduradunekin hitz egitea, eta haietako asko euskaldunak izanik, beharrezko egiten zitzaion euskaraz egitea, edo ulertzea behinik behin. Antzeko zerbaiten berri eman zigun Estherrek. Bere lanaren bezero ugari euskal kulturgintzako erakundeak izanik, nahitaezko egiten zitzaion euskaraz egitea, eta txukun egin beharra ere. Isabelek, halaber, herri euskaldun bateko hiritarrek harremanak eduki behar izaten zituen maiz udal obrak bideratzeko, eta herritarrek ohituraz euskaraz egiten zutelarik euskaraz egiteko beharra begi bistakoa zuen

4.10.- Zonalde soziolinguistikoa

Aldagai soziolinguistikoa oso lotuta dago euskaldunen dentsitate eta euskararen bizitasun sozialarekin. Zonalde linguistikoko euskaldun batean kokaturiko enpresa edo herri erakunde batek, teoriarik behinik behin, aukera handiak ditu langile euskaldun ugari izateko, euskararen presentzia bizia izateko, eta kanpoko bezeroekiko harremana euskaraz izateko. Zenbat eta gertuago egon hizkuntza egoera normal batetik, orduan eta aukera gehiago daude hizkuntza sozializazio prozesuak (eta harekin batera hizkuntza *jabekuntzarena*) era naturalagoan eta indartsuagoan emateko. Usteak uste, ezin dugu gauza handirik esan honetaz eskura ditugun datuekin, ez era estatistikoan bederen.

Era kualitatiboan begiratuta, ordea, ikusten dugu hizkuntza ohituraren aldaketa fenomenoak herri euskaldunetan bezala herri erdaldunetan ere ezaugarri bertsuak dituela eta baldintza antzerakoak dituela, barrura begira jartzen garenean behinik behin. Puntu bertsu hori, euskaldun-gai baten eta euskaldun baten artean ematen den uztardura sakona da: hizkuntza aldaketaren prozesua abiarazten du horrek, eta aurrera egin ahala elikatu ere. Baina kanpora begira jartzen garenean, ohartu egiten gara, berehala ohartu ere, euskaldunak eta euskaldun-gaiak osaturiko oinarritzko talde horiek aldeko ingurune baten beharrean izaten direla prozesua erraztu eta bizkortuko bada. Euskal ingurune orokorrago hauek, halaber, elikatu egiten dituzte oinarritzko taldeak, hizkuntzaren beharrezkotetasun naturala begi bistakoa eginez, euskaldunekin harremanak izateko aukerak ugalduz, hizkuntzaren *jabekuntza* prozesua bizkortuz, zentzua emanez eta abarrez.

Hizkuntza inguruaren eragin “elikatzailea” behin eta berriro ikusi dugu gure protagonisten lekukotasunetan. Baina, baita ere, ikusi dugu, zonalde erdaldunetan ingurune euskaldun sendo samarrak sor daitezkeela, eremu txikietan behinik behin. Haietan hizkuntza era normalizatuan bizi daiteke. Estherren kasua gogoan, ikusi dugu nola eskualde erdaldun barruko lan ingurune txiki zeharo euskaldun batean eman dela hizkuntza sozializazio arrakastatsua, aztertu ditugun kasu guztien artetik hizkuntza-murgilketa prozesurik naturalena ezagutu duena, hain zuzen ere.

Lantoki inguruko zonalde soziolinguistikoak eragin nabarmena du, zalantzarik gabe. Baina, askotan ikusi dugu lantokiko talde txikietan sortu den mikro-klima soziolinguistikoak gailendu zaiola, eraginari dagokionez, lantokitik kanpo zegoen egoera soziolinguistikoari.

5.- Ikerketaren fitxa tekniko

➤ Ikerketa:	<i>Aldahitz ikerketa 2011. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan-munduan.</i>
➤ Iraupena:	2010eko ekainetik 2011ko ekainera.
➤ Egilea:	Soziolinguistika Klusterra.
➤ Talde tekniko:	Pello Jauregi (HUHEZI), Zuzendaria; Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra), laguntzailea eta koordinatzailea.
➤ Lantaldea:	AEK (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Agurtzane Loidi), Emun (Gurutze Mendizabal), Eusko Jaurlaritzako HPS (Jon Aizpurua), Hernaniko Udala (Malores Etxeberria), HUHEZI (Pello Jauregi) eta Soziolinguistika Klusterra (Pablo Suberbiola).
➤ Finantziak:	Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila (HPS). 2010ean eta 2011n.
➤ Informazio zabalagoa (txostenak):	a) <i>Aldahitz 2011. Ondorioen sintesia.</i> b) <i>Aldahitz 2011. Ikerketaren txosten osoa.</i>
➤ Harremanetarako:	Soziolinguistika Klusterra. E-posta: p.suberbiola@soziolinguistika.org www.soziolinguistika.org. 943.592556.

Aldahitzeko Garapen Taldea

Soziolinguistika Klusterra